# SORALUZEKO HAUR, GAZTE ETA GURASOEN HIZKUNTZA OHITUREN AZTERLANA, 2015

Egilea: Aztiker Soziologia Ikergunea
Zuzendaritza eta koordinazioa: Soziolinguistika Klusterra

# AURKIBIDEA


**0 SARRERA .... 4**

**1 METODOZKO OHARRAK .... 5**

1.1. UNIBERTSOAK ETA LAGINAK .... 5
1.2. BIRKODETZEAK .... 7
*ALDAGAI SOZIOLINGUISTIKOAK* .... 7
*ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK* .... 9
1.3. ERABILERA-TASA ESLEITUAK .... 9
1.4. ETXEKO ERABILERA OROKORRA ETA IKASLEEN ARTEKO ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA .... 11
1.5. ESKOLAZ KANPOKO EREMU FORMALETAN EUSKARA ERABILEREN TASA ESLEITUAK .... 13
1.6. IRAKASLE ETA IKASLEEN ARTEKO ERANTZUNEN ALDERAKETA .... 14

**2 LABURPENA .... 15**

**3 TESTUINGURUA .... 21**

3.1 IKASLEEN EUSKARA ERABILERA ESKOLA INGURUETAN, KALE NEURKETA .... 24

**4 AZTERTUTAKO IKASLEEN EZAUGARRIAK .... 25**

4.1. IKASMAILA .... 25
4.2. EREDUA .... 26
4.3. SEXUA .... 27
4.4. GURASOEN SORLEKUA .... 28
4.5. LEHEN HIZKUNTZA .... 29

**5 HIZKUNTZA GAITASUNAK ETA GAITASUN ERLATIBOA .... 30**

5.1. IKASLEEN HIZKUNTZA GAITASUNA (EUSKARA) .... 30
5.1.1. Euskaraz ulertu .... 30
5.1.2. Euskaraz hitz egin .... 31
5.1.3. Ikasleen hizkuntza gaitasuna .... 32
5.2. IKASLEEN HIZKUNTZA GAITASUNA (GAZTELANIA) .... 33
5.2.1. Gaztelaniaz ulertu .... 33
5.2.2. Gaztelaniaz hitz egin .... 34
5.3. HIZKUNTZA GAITASUN ERLATIBOA .... 35
5.3.1. Zein hizkuntzatan ULERTU errazago .... 35
5.3.2. Zein hizkuntza HITZ EGIN errazago .... 36
5.3.3. Hizkuntza gaitasun erlatiboa .... 37
5.4. HIZKUNTZA GAITASUN ERLATIBOA, HAINBAT ALDAGAIREN ARABERA .... 38
5.4.1. Sexua .... 38
5.4.2. Lehen hizkuntza .... 39
5.4.3. Gurasoen hizkuntza gaitasuna .... 41
5.4.4. Gurasoen sorlekua .... 43




**Soziolinguistika Klusterra**
**Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org**

5.5. SENITARTEKOEN HIZKUNTZA GAITASUNA ........ 45
5.5.1. Aitaren hizkuntza gaitasuna ........ 45
5.5.2. Amaren hizkuntza gaitasuna ........ 48
5.5.3. Gurasoen hizkuntza gaitasuna, sintesia ........ 51
5.5.4. Anai-arreben hizkuntza gaitasuna ........ 52

**6 HIZKUNTZA JABEKUNTZA ........ 54**

6.1. IKASLEEN ETA GURASOEN LEHEN HIZKUNTZA ........ 54
6.2. IKASLEEN HIZKUNTZA GAITASUNA ETA LEHEN HIZKUNTZA ........ 55

**7 HIZKUNTZA ERABILERA ........ 56**

7.1. ETXEKO EREMUA ........ 56
7.1.1. Anai-arrebekiko euskara erabilera ........ 57
7.1.2. Hizkuntza erabilera gurasoekin ........ 59
7.1.3. Euskararen erabilera guztiok elkarrekin daudenean ........ 65
7.1.4. Etxeko erabilera esleitua ........ 66
7.2. ESKOLA EREMUA ........ 67
7.2.1. Euskara erabilera ikaskideekin klase garaian ........ 67
7.2.2. Euskara erabilera ikaskideekin jolas-orduan ........ 68
7.2.3. Ikastetxeko euskara erabilera (ikasleen artean) ........ 69
7.3. BESTE EREMU FORMALETAN, IRAKASLE EDO MONITOREEKIN ........ 70
7.3.1. Euskara erabilera monitoreekin Ludoteka/Gaztetxokoan ........ 71
7.3.2. Euskara erabilera irakasleekin musika eskolan ........ 72
7.3.3. Euskara erabilera irakasleekin dotrina sendotzen ........ 73
7.3.4. Euskara erabilera irakasleekin pintura eskolan ........ 74
7.3.5. Euskara erabilera monitoreekin liburutegian ........ 75
7.3.6. Euskara erabilera irakasleekin dantza taldean ........ 76
7.3.7. Euskara erabilera monitoreekin eskola kiroleko saioetan ........ 77
7.3.8. Euskara erabilera monitoreekin Sora futbol taldean ........ 78
7.3.9. Euskara erabilera irakasleekin klase partikularretan ........ 79
7.4. BESTE EREMU FORMALETAN, IRAKASLE EDO MONITOREEKIN, SINTESIA ........ 80
7.5. BESTE EREMU FORMALETAN, LAGUN EDO TALDEKIDEEKIN ........ 81
7.5.1. Euskara erabilera ikaskideekin Ludoteka/Gaztetxokoan ........ 82
7.5.2. Euskara erabilera ikaskideekin musika eskolan ........ 83
7.5.3. Euskara erabilera ikaskideekin dotrina-sendotzen ........ 84
7.5.4. Euskara erabilera ikaskideekin pintura eskolan ........ 85
7.5.5. Euskara erabilera ikaskideekin liburutegian ........ 86
7.5.6. Euskara erabilera ikaskideekin dantza taldean ........ 87
7.5.7. Euskara erabilera ikaskideekin eskola kiroleko saioetan ........ 88
7.5.8. Euskara erabilera ikaskideekin Sora futbol taldean ........ 89
7.5.9. Euskara erabilera ikaskideekin klase partikularretan ........ 90
7.6. BESTE EREMU FORMALETAN, LAGUN EDO TALDEKIDEEKIN, SINTESIA ........ 91
7.7. EREMU FORMALETAN EUSKARA ERABILEREN TASA ESLEITUAK ........ 92
7.8. EREMU EZ FORMALA ........ 93
7.8.1. Euskara erabilera ikaskideekin kalean ........ 93
7.8.2. Euskara erabilera lagunekin txateatzen ........ 94
7.9. EREMU EZ FORMALA, SINTESIA ........ 95
7.10. KOMUNIKABIDE ETA KULTUR KONTSUMOA ........ 96
7.10.1. Telebista ikustean hizkuntza hautaketa ........ 96
7.10.2. Irratia entzutean hizkuntza hautaketa ........ 97



Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

7.10.3. Musika entzutean hizkuntza hautaketa ... 98
7.10.4. Liburuak irakurtzean hizkuntza hautaketa ... 99
7.10.5. Interneten nabigatzean hizkuntza hautaketa ... 100
7.10.6. Filmak ikustean hizkuntza hautaketa ... 101
7.11. KOMUNIKABIDE ETA KULTUR KONTSUMOA, SINTESIA ... 102
7.12. IKASLEEN EUSKARA ERABILEREN TASA ESLEITUAK, EREMU NAGUSIAK ... 103
7.13. IKASLEEN EUSKARA ERABILEREN TASA ESLEITUAK, GUZTIAK ... 104
7.14. GURASOEN HIZKUNTZA ERABILERA ... 106
7.14.1. Gurasoen artean ... 106
7.14.2. Eskolarekin ... 108

**8 EUSKARAREKIKO IRITZI ETA JARRERAK ... 109**

8.1. IKASLEEN EUSKARAREKIKO IRITZIAK (DBH) ... 109
8.2. GURASOEN EUSKARAREKIKO JARRERA ETA IRITZIAK ... 112
8.3. DBHko IKASLE ETA GURASOEN IRITZIEN ARTEKO ALDERAKETA ... 118

**9 ERANSKINAK ... 119**

9.1. IKASLEEN HIZKUNTZA GAITASUNA (EUSKARA) ... 119
9.1.1. Euskaraz ulertu ... 119
9.1.2. Euskaraz hitz egin ... 119
9.1.3. Ikasleen hizkuntza gaitasuna ... 120
9.2. IKASLEEN HIZKUNTZA GAITASUNA (GAZTELANIA) ... 121
9.2.1. Gaztelaniaz ulertu ... 121
9.2.2. Gaztelaniaz hitz egin ... 122
9.3. HIZKUNTZA GAITASUN ERLATIBOA ... 123
9.3.1. Zein hizkuntzatan ulertu errazago (alderaketa ikasle eta irakasleen artean*) ... 123
9.3.2. Zein hizkuntza hitz egin errazago (alderaketa ikasle eta irakasleen artean) ... 124
9.3.3. Hizkuntza gaitasun erlatiboa (alderaketa ikasle eta irakasleen artean) ... 125



Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

# 0 SARRERA

Txosten honetan Soraluzeko eskoletako ikasleek betetako inkesta baten erantzunen emaitzak aurkezten dira. Baita ikasle horiei buruz euren irakasleek eta gurasoek betetako inkestaren emaitzak ere. Haur Hezkuntzako bigarren ziklotik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zikloraino matrikulatuak dauden ikasle ia guztien inguruko informazioa bildu da. Ikasleen inkesta 2015eko martxoaren 11 eta 28 artean egin zen eta martxoa eta maiatzaren artean gurasoena.

Hainbat alorretan ikasleek duten gaitasuna neurtzeaz gain, ikasleen eta euren familien hainbat ezaugarri ere biltzen dira galdera sorta baten bidez (ikus galdera sortak I. eranskinean), tartean hizkuntzen ezagutza, erabilera eta jarrerei buruzko alderdiak. Ikasgelan paperean betetako inkestan erantzun zieten ikasleek eta irakasleek galdera horiei. Haur Hezkuntzako ikasleen kasuan, euren irakasleek bete zuten inkesta. Gurasoek berriz, etxean paperean bete zuten inkesta.

Txosten honetan, beraz, galdera sorta horietan jasotako informazioaren emaitzak aurkeztuko ditugu.



Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

# 1 METODOZKO OHARRAK

## 1.1. UNIBERTSOAK ETA LAGINAK

**Ikasle unibertsoa (datu ofizialen[1] arabera)**: 2014-2015 ikasturtean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza politika eta Kultura Sailaren arabera, 476 ikasle zeuden matrikulatuta Soraluzeko eskolan. 129 Haur Hezkuntzako bigarren ziklokoan (HH), 234 Lehen Hezkuntzan (LMH) eta 113 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH). Denak ikastetxe publikoan.

**Ikasle lagina**: Guztira 462 ikasleek bete dituzte inkestak. 124 HHn, 224 LMHkoak eta 114 DBHkoak.

**Ikasmaila**

| | Unibertsoa, datu ofizialen arabera | | Lagina | |
|---|---|---|---|---|
| | Maiztasuna | Ehunekoa (%) | Maiztasuna | Ehunekoa (%) |
| HH | 129 | 27,1 | 124 | 26,8 |
| LMH | 234 | 49,2 | 224 | 48,5 |
| DBH | 113 | 23,7 | 114 | 24,7 |
| **Guztira** | **476** | **100,0** | **462** | **100,0** |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015

Unibertsoa eta laginaren arteko erlazioa aztertuta, argi ikusten da praktikan, lagin bidez egindako inkesta baino zentsua dela lortutakoa. Hau da, ia unibertso osoaren informazioa bildu da. DBHren kasuan gainera, laginean ikasle bat gehiago dago datu ofizialeko datuetan baino[2].

Gurasoen kasuan, unibertsoaren inguruko datu zehatzik ez dugu bildu. Ondorengo taulan ageri dira jasotako inkesten banaketa ikasle eta gurasoen proportzioak harremanean.

**Ikasle / Guraso proportzio-harremana**

| | Ikasle lagina | | Guraso lagina ikasleekiko | | Gurasoen lagina familietan | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Maiztasuna | Ehunekoa (%) | Maiztasuna | Ehunekoa (%) | Maiztasuna | Ehunekoa (%) |
| HH | 124 | 26,8 | 112 | 25,8 | 55 | 18,4 |
| LMH | 224 | 48,5 | 212 | 48,8 | 138 | 46,2 |
| DBH | 114 | 24,7 | 110 | 25,3 | 106 | 35,5 |
| **Guztira** | **462** | **100,0** | 434 | 100,0 | **299** | **100,0** |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015

[1] Datu ofizial horiek Hezkuntza Sailak eskuartean dituenak dira. Gerta liteke hasierako matrikulazioetan gorabeherak egotea ikasturtean zehar.
[2] Lagina unibertsoa baino handiagoa izatearen arrazoia honakoa izan daitekeela uste dugu: ikasturtea abian zela DBHn ikasleren bat gehiago matrikulatu izana. Matrikulazio datuak bildu eta inkesta bete artean ia urte beteko tartea izatearen desfaseari erantzuten diola suposatzen dugu.



Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

Ikus daitekeenez, gurasoen eta ikasleen laginak oso antzekoak dira. Gurasoen inkestak jasotzeko, anai-arreba bat baino gehiago zegoenean, guztietatik nagusiena arduratu zen gurasoen inkesta biltzeaz. Horren ondorioz, DBHn ia ez dago tarterik ikasle eta gurasoen artean eta HHn eta LMHn tartea pixka bat handiagoa da.

Hori kontuan hartuta, gurasoen datuen ustiaketa bi modu ezberdinetan egingo da txostenean. Guraso berberek seme-alaba bat baino gehiago dutenean, haien datuak seme-alaba bakoitzari egotzi zaizkio. Ondorioz, ikasleekin harremanetan ematen direnean guraso batzuen inguruko informazioa “bikoiztua” egongo da. Gurasoez orokorrean eta ikasleekin harremanik gabe hitz egiten dugunean, aldiz, lagina txikiagoa izango da, familia edo senideei dagokiena, hain zuzen.



Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

## 1.2. BIRKODETZEAK

Inkestan egindako jatorrizko galdera-erantzunetan oinarrituta, honako birkodetze hauek landuko ditugu txosten honetan:

❖ *ALDAGAI SOZIOLINGUISTIKOAK*

**Euskarazko hizkuntza gaitasuna (eta erlatiboa)**

Sailkapen hau galdera-sortako 1. galderan oinarritzen da. Izan ere, ikasleek euskaraz dakiten jakiteko eta zer nolako ezagutza duten jakiteko, galdera bat baino gehiago txertatu da galdera-sortan. Zehazki, euskaraz ulertzeko eta hitz egiteko gaitasunari buruzko galderak egin zaizkie elkarrizketatuei, zentsuetan erabiltzen den antzeko galdera eredua erabiliz. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egin ohi dituen Soziolinguistikazko Inkestetan ohikoa den galdera ere egin zaie ikasleei: euskaraz ala gaztelaniaz, zein hizkuntzatan moldatzen diren hobeto hitz egiterakoan (3.galdera).

Informazio horretan oinarrituta, aldagai bakarrean bildu dugu hizkuntza gaitasunaren inguruko informazioa. Azkenean, eta zentsuetan eta Soziolinguistikazko Inkestetan erabili ohi diren sailkapen irizpideak kontuan hartuta, honako kategorietan sailkatu ditugu ikasleak, euren hizkuntza-gaitasunari erreparatuta:

- **Erdaldunak**: ez dute euskara ulertzen eta ez dute hitz egiten.
- **Elebidun hartzaileak**: euskara nekez edo ongi ulertzen dute, baina ez dute hitz egiten edo hitz batzuk hitz egiten dituzte.
- **Elebidunak**: euskara ondo ulertzen dute eta ondo hitz egiten dute. Horien barruan, halaber, honako multzoak egin ditugu (errazago zein hizkuntzatan moldatzen diren kontuan izanda, euskaraz ala gaztelaniaz):
  - **Erdal elebidunak**: euskaraz hitz egiteko gai dira, baina gaztelaniaz errazago mintzatzen dira, euskaraz baino.
  - **Elebidun orekatuak**: euskaraz zein gaztelaniaz, berdintsu moldatzen dira bietan.
  - **Euskal elebidunak**: euskaraz errazago hitz egiten dute, gaztelaniaz baino.



Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

Anai-arreben eta gurasoen hizkuntza gaitasuna ere modu ia berdinean birkodetu da. Beraien kasuan, erantzundako euskara gaitasunaren galderek hiru erantzun aukera zituzten, bost beharrean. Hori kontuan hartuta berdinketak horrela egin ditugu:

| Ikasleak | Anai-arrebak eta gurasoak |
|---|---|
| Ongi | Ongi |
| Nahiko ongi | |
| Zertxobait | Zerbait |
| Hitz batzuk | Ezer ez |
| Ezer ez | |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015

**Gurasoen hizkuntza gaitasuna.** Bi guraso dituzten ikasleen kasuan, bi gurasoen euskara gaitasuna kontuan hartuta sortu dugu aldagai hau. Horrela, bi aldagai horiek gurutzatuz eta proportzio handien zituzten konbinaketak kontuan hartuta honako kategoriak sortu ditugu:

- **Guraso elebidunak**
- **Guraso bat elebiduna bestea hartzailea**
- **Bi gurasoak elebidun hartzaileak**
- **Guraso bat elebidun hartzailea bestea erdalduna**
- **Bi gurasoak erdaldunak**

**Euskararen eta gaztelaniaren erraztasuna/zailtasuna (Birkodetua)**. Aldagai honen inguruko informazioa bi modutan atera dugu. Batetik, "3. OROKORREAN ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZU ERRAZTASUN HANDIAGOZ?" galdera zegoen txertatua inkestan. Galdera horretan ikasleek eta irakasleek eman duten informazioa zuzenean jaso da txostenean.

Bestetik, ikasleek eta irakasleek erantzun dute ikasleak euskara eta gaztelania, ulertu eta hitz egin, zein mailan egiten duten (Ongi, nahiko ongi, zertxobait, hitz batzuk, ezer ez). Lau galdera horietan bakoitzak emandako erantzunen arabera (ikasleen bi galdera eta irakasleek beste bi) sortu dugu aldagai birkodetua. Horrela, aldagai birkodetuaren kategoriak honakoan dira:

- Euskara errazagoa
- Bi hizkuntzei erraztasun/zailtasun-maila bera
- Gaztelania errazagoa

Aipatu birkodetzea, ulertzeko gaitasunarekin eta hitz egiteko gaitasunarekin egin da, bakoitza bere aldetik.

❖ *ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK*

**Jatorria**. Ikasleen ama eta aita non jaio diren aintzat hartuta, honako kategoria hauetan multzokatu ditugu:

- Gurasoak Euskal Herrian
- Guraso bat Euskal Herrian bestea Estatuan
- Gurasoak Estatuan
- Gurasoak Estatutik kanpo
- Beste egoerak (Bestelako egoerak[3] edo informazio hutsuneak)

## 1.3. ERABILERA-TASA ESLEITUAK

Inkestak emandako erantzunen ugaritasuna laburtzeko asmoz, eta hizkuntza-erabilerari buruzko hainbat galderari emandako erantzunetan oinarrituta, **euskararen erabilera-tasa esleituak** kalkulatu ditugu, honako aldagai hauetan:

- Ikasleen arteko erabilera gela barruan
- Ikasleen arteko erabilera jolas-orduan
- Ikasleen erabilera aitarekin (ikasleek eta gurasoek betetako itema)
- Ikasleen erabilera amarekin (ikasleek eta gurasoek betetako itema)
- Ikasleen erabilera anai-arrebekin (ikasleek betetako itema)
- Etxekoen erabilera denak batera daudenean (jatorduetan, telebistan…) (ikasleek betetako itema)
- Gurasoen erabilera euren artean (gurasoek betetako itema)

Zehazki, aldagai horietako bakoitzean, ikasleek edo gurasoek emandako sei erantzun posibleak hartu eta honako balio hau eman diogu erantzun posible bakoitzari:

- Beti euskaraz = %100 euskaraz
- Gehiago euskaraz= %75 euskaraz
- Bietara = %50 euskaraz
- Gehiago gaztelaniaz = %25 euskaraz
- Beti gaztelaniaz = %0 euskaraz
- Beste hizkuntza batean = %0 euskaraz

[3] Kategoria honetan sartzen diren adibide batzuk: aita Euskal Herrian jaioa eta ama estatutik kanpo, edo aita edo ama bakarra izatea, e.a.



Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

Balio horietan oinarrituta, eta ikasle guztiak kontuan hartuta, euskararen erabilera-tasa zenbatekoa litzatekeen kalkulatu dugu. Adibide gisa, hona hemen *“Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure gelako lagunekin gelan?”* galderari LMHko ikasleek emandako erantzunak eta horietan oinarrituta nola kalkulatu dugun erabilera-tasa esleitua.

| | LMH | Erabilera esleituaren tasaren kalkulua | |
|---|---|---|---|
| | Ehunekoa (%) A | % B | % A*B/100 |
| Beti euskaraz | 32,3 | 100 | 32,3 |
| Gehiago euskaraz | 31,4 | 75 | 23,5 |
| Bietara | 26,9 | 50 | 13,5 |
| Gehiago gaztelaniaz | 7,6 | 25 | 1,9 |
| Beti gaztelaniaz | 1,8 | 0 | 0,0 |
| Beste hizkuntza batean | 0,0 | 0 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | | |
| Esleitutako erabilera tasa | | | 71,2 |

Erabilera-tasa esleituak zera esan nahiko luke: inkestan jasotako erantzunak errealitatearen isla zuzen-zuzena izango balira (alboratzerik ez balego), zenbat euskara entzungo litzatekeen, ehunekoetan adierazita. Adibidearen kasuan, kopuru horrek zera adieraziko digu: inkestako erantzunen arabera, %71,2koa da euskararen erabilera LMHko haurren artean Soraluzeko ikastegietako geletan.

## 1.4. ETXEKO ERABILERA OROKORRA ETA IKASLEEN ARTEKO ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA

**Etxeko erabilera orokorra**. Etxeko erabilera orokorra kalkulatzeko, ikasleen inkestan oinarrituta, gaiari buruz inkestan jasotako bost galderaren emaitzak hartu dira kontuan. Zehazki, honako pisu hau eman zaio galdera bakoitzari aldagai birkodetu berria sortzerakoan, eta taulan aipatzen den balioa eman zaio kategoria bakoitzari:

| Jatorrizko galdera | Galdera bakoitzari eman diogun pisua etxeko erabilera orokorra kalkulatzerakoan | Erantzun posible bakoitzari eman diogun balioa |
|---|---|---|
| *Etxekoek, denek, batera zaudetenean (jatorduetan, telebistan...), zein hizkuntzatan hitz egiten duzue?* | %50 | Erabilera-tasa esleituan aipatutako irizpide berberak aplikatu ditugu hemen ere |
| *Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure amarekin?* | %15 | Erabilera-tasa esleituan aipatutako irizpide berberak aplikatu ditugu hemen (beste hizkuntza batean kenduta, aukera hori ez baitzen ematen galdera sortan) |
| *Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure aitarekin?* | %15 | |
| *Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure neba-arrebekin?* | %10 | |
| *Zein hizkuntzatan hitz egiten dute zure gurasoek beraien artean?* | %10 | Erabilera-tasa esleituan aipatutako irizpide berberak aplikatu ditugu hemen ere[4] |

Horren emaitza **etxeko erabilera-tasa orokorra** dugu, eta gainerako erabilera-tasa esleituak bezala irakurri behar da.

Bestalde, etxeko erabilera aldagai aske gisa erabili behar dugunerako, **etxeko erabilera multzotan** aldagaia sortu dugu, eta honako bost multzo hauetan bildu ditugu ikasleak, euren etxeko erabilera-tasa esleituaren arabera:

- Beti euskaraz: %100 euskaraz
- Gehiago euskaraz: %60,1 eta %99,9 euskaraz.
- Bietara: %40,1 eta %60 artean euskaraz.
- Gehiago gaztelaniaz: %0,1 eta %40 artean euskaraz.
- Beti gaztelaniaz: %100 gaztelaniaz

**Ikasleen arteko eskolako euskara erabilera orokorra**

Ikasleen arteko eskolako euskara erabilera orokorra kalkulatzeko, gaiari buruz inkestan jasotako bi galderaren emaitzak hartu dira kontuan:

- Ikaskideen artekoa gelan
- Gelako lagunekin jolaslekuan

[4] ARRUEko ikerlanean galdera honek hiru kategoria ditu, beraz tasa esleitua ez da berdin kalkulatzen

Bi erabilera horiek konbinatu dira ***Ikasleen arteko eskolako euskara erabilera orokorra*** mendeko aldagai trinkoa osatzeko, baina ez zaie bi erabilerei pisu bera eman mendeko aldagaiaren barnean. Horrela egindako eragiketa honakoa izan da:

Ikaskideen artekoa gelan * 0,4 + Gelako lagunekin jolaslekuan * 0,6 = Ikasleen eskolako erabilera orokorra

Zergatik eman zaie bi erabilerei pisu ezberdina mendeko aldagaia osatzean? Eta zeren arabera hobetsi da haztapen hori eta ez beste bat? Arrue 2011ko txostenean ematen diren bi irizpide hauek jarraituta hartu ditugu erabakiak:

a) *Mintzajardunaren nolakoa: gizarte-bizitzarako garapen-oinarri gisa esanguratsuagoa da ikasleen arteko erabilera informala, eguneroko asmo-gogo-beldur-irrikez oratua, trebetasun- edo ezagutza-item kurrikularrak lantzeko jarduera formala baino. Funtsezko puntua da hori: Pitagoras-en teorema (eta hura azaltzeko hizkera moldea) ez dugu gehienok, eguneroko bizian, baliatu beharrik izaten: han jasotzen den hainbat pauta egoki gerta liteke interakzio-baldintza formaletarako, baina (lanbide batzuetako jarduera-esparru batzuetan izan ezik) gutxi dira halakoak hiztun-elkarte gehienetan eta are gutxiago (euskara-erdaren funtzio-moldaera nagusiaren ondorioz) gurean.*

b) *Mintzajardunaren situazio-egoera (non-norekiko jardunaren eragina): diferenteak dira irakasleekiko harreman-jarduerak eta ikaskideekikoak, aurreko ataletan esandakoaz gainera, situazio-egoerak eragindako baldintzen aldetik ere. Libreagoak dira jarduera batzuk, eta ingurumen-baldintzek behartuagoak besteak. Ingurumen-baldintza horiek adierazgarriak dira, bestalde, solidaritate/aginte parametroen aldetik ere. Horrek ere pisua du, nola ez, jarduera horren aurrera begirako garapen-aukeretan”.*

Irizpide horietan oinarrituta eta arestian finkatutako haztapena aplikatuta sortu dugun aldagai berriari **eskolako erabilera-tasa orokorra** deitu diogu eta gainerako erabilera-tasa esleituak bezala irakurri behar da.

Bestalde, ikasleen eskolako erabilera aldagai aske gisa erabili behar dugunerako, etxeko erabilerarekin egin bezala, **ikasleen arteko eskolako erabilera orokorra multzotan** aldagaia sortu dugu, eta honako bost multzo hauetan bildu ditugu ikasleak, euren eskolako erabilera-tasa esleituaren arabera:

- Beti euskaraz: (%100 euskaraz)
- Gehiago euskaraz (%60,1 eta %99,9 euskaraz).
- Bietara (%40,1 eta %60 artean euskaraz).
- Gehiago gaztelaniaz (%0,1 eta %40 artean euskaraz).
- Beti gaztelaniaz (%100 gaztelaniaz).

## 1.5. ESKOLAZ KANPOKO EREMU FORMALETAN EUSKARA ERABILEREN TASA ESLEITUAK

Eskolaz kanpoko hainbat eremu formaletan[5] ikasleek zein hizkuntzan egiten duten galdetu zaie, bai haien artean bai eremu horietako irakasle edo monitoreekin. Eremu bakoitzean oso ikasle kopuru ezberdinak parte hartzen du. Ondorioz, eremu formaletan euskara erabileren tasa esleituak kalkulatzeko horiek kontuan hartu ditugu. Horretarako guztira zenbat ikaslek hartzen duten parte eremu ezberdinetan kalkulatu dugu lehenik. Ondoren, eremu bakoitzean parte hartzen duten horiek guztiarekiko osatzen duten proportzioa edo portzentajea kalkulatu da. Eta azkenik, eremu bakoitzean kalkulatutako tasa esleitua portzentaje horregatik biderkatu eta 100engatik zatitu dugu.

Adibidea jarrita, LMHn guztira 604 ikasle dira parte hartzen dutenak eremu formaleko ekintza ezberdinetan. Ludoteka/Gaztetxokoan 84 dira, beraz, %13,9. Ludoteka/Gaztetxokoko tasa esleitua LMHn 71,4 kalkulatu dugu. Ondorioz, 71,4 * 13,9/100=9,9 da tasa orokorrari egingo dion ekarpena.

Modu horretara atera ditugu bi tasa esleitu:

1.- Irakasleekin eremu formaletan euskara erabilera tasa esleitua

2.- Ikaskideekin eremu formaletan euskara erabilera tasa esleitua

Bi horietatik abiatuta, eremu formaletan euskara erabilera tasa esleitu orokorra kalkulatu dugu. Horretarako Arrue 2011 ikerketan proposatutako metodologia izan dugu ipar-orratz. Bertan, eskolako erabilera orokorrerako lau erabilera ezberdinen konbinazioa proposatzen zen (a. Ikaskideen artekoa gelan, b. Ikaskideekin artekoa jolaslekuan, c. Irakasleekin gela barruan eta d. Irakasleekin gelatik kanpo), baina ez zitzaien lau erabilerei pisu berdina eman mendeko aldagaiaren baitan. Ondorengo irudian adierazten da mendeko aldagaiaren baitan lau erabilera horietako bakoitzari eman zitzaion pisua:

Gure kasuan, eskolaz kanpoko eremu formaleko tasa esleitu orokorra kalkulatzeko bi erabilera ditugunez (irakasleekin eta ikasleen artekoa) honako haztatzea egin dugu:

Ikaskideen artekoa %55 eta irakasleekin %45.




[5] Hemendik aurrera, txostenean "eremu formalak" erabiliko da haur eta nerabeen aisialdi antolatuari erreferentzia egiteko.

## 1.6. IRAKASLE ETA IKASLEEN ARTEKO ERANTZUNEN ALDERAKETA

Hainbat galdera egin zaizkie ikasleei eta irakasleei. Zenbateraino ulertu eta hitz egiten duten euskaraz eta gaztelaniaz, LMHko eta DBHko ikasleek erantzun dute, baina baita haien irakasleek ere. Batzuen eta besteen erantzunen alderaketa eranskinetan gehitu dugu, txostenean berriz soilik irakasleen erantzunak jaso ditugu, bi arrazoiengatik:

1. Batzuen eta besteen erantzunetan, batzuetan pentsa daitekeenaren kontra, ez dago alde nabarmenik. Ikasleek haien gaitasunez emandako erantzunak eta irakasleek ikasleen gaitasunez emandakoak oso antzekoak dira eta joerak berdinak.
2. Bestetik, irakasleek, gaitasun horietan Haur Hezkuntzako ikasleen inguruan ere eman dituzte erantzunak, beraz, informazio gehiago jaso da irakasleen erantzunetatik ikasleenetatik baino, horregatik irakasleen erantzunak baliatzea erabaki dugu.

Bestetik, Ikasleek errazago zein hizkuntzatan ulertzen duten ez diegu zuzenean galdetu, bai, ordea, euskaraz ulertzeko duten gaitasunari buruz alde batetik eta gaztelaniaz ulertzeko duten gaitasunari buruz bestetik (bai ikasleei, baita irakasleei ere). Hala, bi erantzunok konbinatuta aldagai berria sortu dugu eta bi segmentuei (ikasle eta irakasleei) dagozkien datuak taula berera ekarri ditugu (ikus eranskinak) alderik dagoen aztertzeko. Haur Hezkuntzako haurren kasuan, ordea, irakasleek besterik ez dute erantzun haur horiek euskaraz ulertzeko duten erraztasunari buruz.

Beraz, gaitasun erlatiboa lantzeko orduan, bi aukera baliatzea zegoen eta biak aztertu ditugu: batetik ikasleek zein irakasleek euskaraz eta gaztelaniaz duten gaitasuna erantzun dutenez, erantzun horien birkodetzea egin dugu. Horrela, bi galderetan, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz gaitasun maila bera zutela erantzun dutenean “bietan berdin” bezala birkodetu dugu. Euskaraz, edozein zela maila, gaztelaniaz baino altuagoa zenean, “Euskaraz errazago” (eta alderantziz), birkodetu dugu.

Beste aukera, bai ikasleek bai irakasleek “OROKORREAN ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZU ERRAZTASUN HANDIAGOZ?” galderari zuzenean emandako erantzunak baliatzea zen. Bi aukeren arteko alderaketak eranskinetan ikus daitezke. Txostenean, irakasleek zuzenean emandako erantzunak baliatu ditugu bi arrazoiengatik:

1. Ikasle eta irakasleen arteko erantzunetan ez dago alde nabarmenik.
2. Irakasleek Haur Hezkuntzako ikasleen inguruan ere erantzun dute.
3. Birkodetua eta zuzenean emandako erantzunen arteko alderaketan argi ikusten da, hizkuntza baten edo bestearen inguruko gaitasunagatik modu isolatuan galdetzen denean, pareko erantzunak jaso ditugula bietan. Aldiz, bi hizkuntzen arteko gaitasunez aldi berean galdetzean, oreka hori apurtu egiten da alde batera edo bestera.

# 2 LABURPENA

## EUSKARA EZAGUTZA

### Lehen hizkuntza

- ✓ Euskara soilik izan dutenen kopurua gaztelania izan dutenen gainetik badago ere, oso parean daude biak (%32,5 eta %30,9).
- ✓ Zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta gehiagok izan dute euskara lehen hizkuntzatzat.

### Euskaraz ulertu

- ✓ 3/4ak baino gehiagok ongi ulertzen dute HHn eta DBHn. LMHn piska bat gutxiago.

### Euskaraz hitz egin

- ✓ Hitz egiteko orduan erdia pasatxo da ongi moldatzen dena (guztira %54,5).

### Zein hizkuntza HITZ EGIN errazago

- ✓ HHko ikasleek euskaraz erraztasun handiago dute (%42,0) eta ikasmailan gora egin ahal erraztasun hori gaztelaniaren aldera aldatzen da. Horrela DBHn erdiak baino gehiagok (%51,8) gaztelaniaz moldatzen dira hobeto hitz egiteko orduan.

### Hizkuntza gaitasun erlatiboa

- ✓ Elebidun kopuru totala txikiena bada ere, Haur Hezkuntzan dago euskal elebidun kopururik altuena (%40,3).
- ✓ Adinean gora egin ahala, euskal elebidun gutxiago eta elebidun orekatu zein erdal elebidun gehiago daude.
- ✓ Dena dela, euskara maila berean edo hobeto hitz egiten dutenen portzentajea, adinean gora egin ahala txikitzen da (%58,8 > %51,7 > 548,3).

#### Sexuaren arabera

- ✓ Hiru mailetako neskatilen artean, mutikoen artean baino elebitasun portzentaje altuagoa dago, batez ere Haur Hezkuntzako zikloan (20,2 puntukoa).
- ✓ DBHn emakumeen artean aldaketa handia dago, euskal elebidunen jaitsieran, eta alde handia gizonekin alderatuta.

#### Lehen hizkuntzaren arabera

- ✓ Euskara lehen hizkuntza izan dutenen artean, duten hizkuntza gaitasunak euskararen aldeko desoreka izatetik euskara eta gaztelaniaren arteko oreka izatera da joera.

- ✓ Gaztelania lehen hizkuntza izan dutenen artean, HHn gehiengoa elebidun hartzaileak da (%52,6). LMHn eta DBHn, berriz, multzo hori txikitu eta erdal elebidunena handitzen da, %60 gaindituz.
- ✓ Tartean, euskara eta gaztelania lehen hizkuntzak izan dituztenak, HHn elebidun orekatuak dira gehienak (%48,1). Ondoren desoreka sortzen da

### Gurasoen hizkuntza gaitasunaren arabera

- ✓ Gurasoen euskara gaitasunak eragin handia du haien seme-alaben euskara gaitasunean. Eragin hori ordea, ikasmailan gora egin ahala, gero eta txikiagoa da.

### Gurasoen sorlekuaren arabera

- ✓ Bi gurasoak Euskal Herrian jaioak izateak, hasiera batean, eragin handia du ikasleen euskara gaitasunean. HHn euskal elebidun dira bi gurasoak Euskal Herrian jaioak dituztenen %49,3. Eragin hori nabarmen jaisten da ikasleen adina gora egin ahala.

## Gurasoen hizkuntza gaitasuna

- ✓ Bi guraso elebidunen presentzia nabarmen handiagoa da HHko ikasleen artean, ia erdia (%47,2). LMHn eta DBHn proportzioa antzekoa da (%30 ingurukoa).Guztietan multzorik handiena bi guraso elebidunak dituztenena da.
- ✓ Euskararen ezagutzarik ez edo oso txikia dutenen portzentajea %25 ingurukoa da orotara. Apur bat nabarmenagoa LMHko gurasoen artean (%28,5).

## Ikasleen eta gurasoen lehen hizkuntza (transmisioa)

- ✓ Guraso biek euskara lehen hizkuntza izan duten ia guztietan, nahiz eta gaztelania ere izan, euskara transmititu dute (%98,7).
- ✓ Gurasoetako batek euskara lehen hizkuntza izan ez duen kasuetan transmisio hori asko jaisten da.
    - Gurasoetako batek euskara eta besteak gaztelania izan dutenean euskara lehen hizkuntza izan dute seme-alaben %48,1ak.
    - Gurasoetako batek bi hizkuntzak eta besteak gaztelania izan dutenetan seme-alaben %12,0ak

## Ikasleen hizkuntza gaitasuna eta  lehen hizkuntza (jabekuntza)

- ✓ Lehen hizkuntza euskara jaso duten ikasleen %70,2k euskal elebidun dira.
- ✓ Lehen hizkuntza gaztelania izan dutenen artean elebidunak dira gehienak (%76,9). Hau da, ikasle horien eskola bidezko euskara jabekuntza nabarmena da.
    - Lehen hizkuntza bakarra gaztelania izan eta egun elebidun diren ikasle horien artean erdal elebidunak dira nagusi (%59,0) eta oso gutxi euskal elebidunak (%1,5).
- ✓ Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania izan dutenen artean multzo nagusia (%42,0) elebidun orekatuena da, baina oso gertutik jarraitzen diete erdal elebidunek (%37,0).



Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

## HIZKUNTZA ERABILERA

### Etxeko eremua

#### Anai-arreben hizkuntza gaitasuna eta haiekin elkarrizketa hizkuntza

- ✓ Anai-arreba elebiduna denean %38an egiten dute beti euskaraz. Anai-arreba elebiduna izanda ere, beste hainbestek (%38,9) beti gaztelaniaz edo gehiago gaztelaniaz egiten dute.
- ✓ Tasa esleituak: Anai-arreba elebiduna denean elkarrizketen %58a ematen dira euskaraz. Elebidun hartzailea denean portzentaje hori 18,8ra jaisten da eta erdalduna denean 4,2ra.

#### Ikaslea aitarekin (ikasleen arabera)

- ✓ LMHko ikasle eta aiten arteko elkarrizketen %40,9a dira euskaraz. DBHko ikasle eta aiten artekoen %36,5.

#### Ikaslea amarekin (ikasleen arabera)

- ✓ LMHko ikasle eta amaren arteko elkarrizketen %38,2a ematen dira euskaraz. DBHko ikasle eta amen artekoen %31,0.

#### Etxeko erabilera esleitua

- ✓ Etxeko erabilera orokorra aztertuta, ia ezberdintasunik ez dago LMH eta DBH artean.
- ✓ Etxeko elkarrizketen hamarretik ia lau izaten dira euskaraz Soraluzen (%39,3).

### Beste eremu formaletan, irakasle edo monitoreekin

- ✓ LMH eta DBHkoen joera antzekoa da, monitore edo irakasle ezberdinekin testuinguru ezberdinetan. Bi ikas mailetako ikasleek musika eskolan eta Ludoteka /Gaztetxokoan egiten dute gehien euskaraz.
- ✓ LMHko ikasleen kasuan, jaitsiera nabaritzen dute klase partikularretan eta bereziki dotrina-sendotzean eta pintura eskolan.
- ✓ DBHkoen kasuan, euskara erabilera txikiena Sora futbol taldean ematen da eta LMHko ikasleekin alderatua tarte handia dago.



Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

## Beste eremu formaletan, lagun edo taldekideekin

- ✓ LMHkoen artean alde handiagoak ikusten dira DBHkoen artean baino.
- ✓ LMHn dantza taldean duten euskara erabilera besteen gainetik nabarmentzen da (%86,0).
- ✓ Ondoren bost esparru ezberdinetan %75-70aren bueltan dabiltza.
- ✓ Klase partikularrak, dotrina-sendotzan eta pintura eskolan erabilerak nabarmen baxuagoak dituzte.
- ✓ DBHkoen kasuan, %35 eta %50aren bueltan dabiltza esparru guztietan, musika eskolan kenduta, %60,9koa dela euskara erabilera.

## Eremu formaletan euskara erabileren tasa esleituak

- ✓ LMHko ikasleen euskara erabilera DBHkoena baino altuagoa da, bai irakasleekin bai ikaskideen artean.
- ✓ LMHko ikaskideen arteko euskara erabilera altuagoa da DBHkoek haien irakasleekin dutena baino.

## Eremu ez formala

- ✓ Ikaskideekin kalean edo txateatzean, ez da ageri alde handirik.
- ✓ LMHkoen kasuan apur bat gehiago egiten dute euskaraz txateatzen dutenean (idatzizko komunikazioa) kalean elkarrekin daudenean (ahozkoa) baino. Baina aldea txikia da euren kasuan eta DBHkoen kasuan berdina da portzentajea.
- ✓ LMH eta DBHkoen arteko alderaketan ordea, aldea ia 10 puntukoa da testuinguru ez formaletan. LMHko ikasleen lagun arteko elkarrizketen %39,3 euskaraz diren bitartean, DBHko ikasleena %29,7 dira.

## Komunikabide eta kultur kontsumoa

- ✓ LMHn euskaraz gehien egiten dena liburuak irakurtzea da.
- ✓ DBHn, irratia entzutea da, nahiz eta liburuak irakurtzea ere hurbil dagoen.
- ✓ Irratia euskaraz entzutea da DBHkoek LMHkoek baino gehiago egiten duten ekintza bakarra komunikabideen arloan.
- ✓ Nahiz eta irratia euskaraz entzun, musikara jotzen dutenean kopuruak jaisten dira eta gehiago DBHkoen kasuan LMHkoen kasuan baino.

## Ikasleen euskara erabileren tasa esleituak, eremu nagusiak

- ✓ Eskolaz kanpoko eremu formaletan da euskara gehien erabiltzen duten eremua, bai LMHko ikasleek bai DBHkoek.
- ✓ Kontuan hartzen badugu ikasleen arteko euskara erabilera eskolaz kanpoko eremu formaletan, hor ere euskara erabilera altuagoa da eskolakoa baino (%65,8 LMHn eta %46,6 DBHn).
- ✓ Etxeko erabileran bi ikasmailen arteko aldeak irauli egiten dira eta gutxigatik bada ere DBHko ikasleek LMHkoek baino gehiago egiten dute euskaraz.



Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

## Gurasoen arteko hizkuntza erabilera

- ✓ Gurasoen arteko elkarrizketak, hizkuntza bakarrean ematen direnean, gehienak gaztelaniaz (%45,8) edo beste hizkuntza batean (%12,2) ematen dira, euskaraz baino gehiago (%9,4).
- ✓ Ikasleen adina gero eta altuagoa izan gurasoen arteko euskara erabilera gero eta baxuagoa da.
- ✓ Bi gurasoak elebidunak direnean, elkarrizketen %58,8 dira euskaraz. Gurasoetako bat elebiduna ez izateak euskararen erabilera %13,6raino jaistea dakar.

## Gurasoen hizkuntza erabilera eskolarekin

- ✓ Eskolak gurasoen euskara erabileran eragiten du, bikoiztu baino gehiago eginez.
- ✓ Gurasoek eskolarekin dituzten harremanetan izaten duten euskara erabilera ia %50ekoa da. Handiagoa HHn beste bi ikasmailetan baino (%45 inguru).



Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

## IRITZIAK ETA JARRERAK

### DBHko ikasleen iritzia

- ✓ Hizkuntza bi edo gehiago jakitea abantaila da pertsonaren garapen intelektualerako adostasun gehien eskuratzen duen esaldia.
- ✓ Bigarren maila batean daude euskararekiko interesa eta euskara zerbait “gurea” bezala ikustea.
- ✓ Euskara (ikastearen) beharrezkotasuna da adostasun gutxien biltzen duen ideia.

### Gurasoen iritzia

- ✓ Euskara ikastea abantailatzat edo garrantzitsutzat jotzen duten baieztapenak dira gurasoen artean adostasun zabalena dutenak (%90etik gorakoa).
- ✓ Euskara “gure” zerbait eta beharrezkoa delako baieztapenak adostasun zabalak biltzen ditu, %80aren bueltan.
- ✓ Adostasun portzentajerik baxuena jaso duena hizkuntzaren zailtasunari dagokiona da (%52,4).

### DBHko ikasle eta gurasoen iritzien arteko alderaketa

- ✓ Ikasle eta gurasoen atxikimendu edo adostasun hurrenkera ezberdina da. Lehen lekuan dagoen baieztapenean (hizkuntza bi edo gehiago jakitea abantaila da pertsonaren garapen intelektualerako) kointziditzen dute, ez ordea hurrengoetan.
- ✓ Gurasoen kasuan atxikimendu nahiko altuagoa eskuratzen dute euskararen “jabetza” sentimendua edo are gehiago euskara denok ikastearen garrantzia.
- ✓ Euskararekiko azaltzen duten interesa ikasle zein gurasoen artean antzekotasun handiagoa du, ikasleena altuxeagoa bada ere.

# 3 TESTUINGURUA

Indarrean dagoen Biztanle Erroldako datuen arabera, 2015eko urtarrilaren 1ekoa alegia, 3.947 lagun bizi dira herrian; horietatik 1.991 gizonezkoak dira eta 1.956 emakumezkoak. 3.947 biztanle horietatik, 1.873 Soraluzen jaioak dira, 786 Gipuzkoako probintziako gainerako herrietan, 184 Euskal Herrian eta 733 Europan, zeinetatik jatorri nagusia Espainiar Estatuan jaiotako 685 soraluzetarrak duten. Afrika jaiotako 167etatik 134 Marokon jaioak dira. Amerikan jaiotako 136 soraluzetarrak kontinentean zehar gehiago banatzen dira, bereziki Hego Amerikan. Kopuruz jatorri nagusienak direnetan, gaztelania dute hizkuntza nagusi haien jatorrizko estatuetan (Ekuador 42, Bolivia 15, Nikaragua 15, Argentina 12). Datu ofizialetatik ezin duguna jakin ordea, bestelako hizkuntzen jabe diren.

2011ko erroldako datuen arabera, biztanleen %56,9 dira euskaldunak; %20,8 ia euskaldunak eta %22,4 erdaldunak. Euskaldunen artean alfabetatuak %73,8 dira eta %22,7 erdizka alfabetatuta daude.

Azken hamarkadan erdaldunen proportzioa nahiko egonkor mantendu da eta euskaldunena 3 puntu baino gehiago jaitsi.

**Hizkuntza gaitasuna, Soraluze 1981-2011**




**Iturria**: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak

Lehen hizkuntzari dagokionean, berriz, 2011n %41,8k euskara zuen lehen hizkuntza moduan; %46,6k gaztelania; %5,7k euskara eta gaztelania eta %5,9k beste hizkuntzaren bat. Lehen hizkuntza euskara dutenen proportzioa 1.986tik gutxika jaisten joan bada ere, azken hamar urteetan eman du jaitsierarik handietan, 7,3 puntu jaitsiz. Horrela, lehen hizkuntza gaztelania dutenek, kontrako bilakaera izan dutelarik, multzo nagusian bihurtu dira.

**Lehen hizkuntza, Soraluze 1986-2011**




**Iturria**: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak

Bukatzeko, etxean erabiltzen den hizkuntzari begiratzen badiogu, euskara %30,5k darabil eta %12,9k biak darabiltza. Gaztelania berriz, %54,5ek darabilte eta azken hamar urteetan 7,3 puntuko igoera izan du.

**Etxeko hizkuntza, Soraluze 1981-2011**




**Iturria**: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak

Soraluzen 2012an egindako kale neurketaren arabera, elkarrizketa guztien %33,6 ziren euskaraz. Haurren kasuan kopuru hori %49,1era igotzen zen, soilik haien artean, hau da, umeen artean ematen ziren elkarrizketetan %33,3ra jaitsiz. Gazteen kasuan, proportzio hori %24,2koa zen.

Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

## 3.1 IKASLEEN EUSKARA ERABILERA ESKOLA INGURUETAN, KALE NEURKETA

Lan honek ikasleek eta haien gurasoek betetako inkesta oinarri badu ere, lan honekin batera herrian behaketa egin zen eskolen aurrean. Bertan, behaketa zuzenaren bidez, hots, ikasleek zuzenean galderarik erantzun gabe, guztira euskararen erabilera %23,5ekoa zen. Ikas-mailaka banatuta, LMHn altuagoa da erabilera (%29,6) DBHn baino (%16,0).

**Eskola erabilera (kale neurketa)**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Euskaraz | 23,5 | 29,6 | 16,0 |
| Gaztelaniaz | 75,6 | 68,8 | 84,0 |
| Beste hizkuntza bat | 0,9 | 1,6 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 459 | 253 | 206 |

**Iturria:** Soraluzeko haur eta gaztetxoen hizkuntza erabilera, Kale Neurketa, 2015

Datu hauek sexu/generoaren arabera aztertzean, neska-mutilen artean alde nabarmenak ageri dira. LMHn neskek gehiago egiten dute euskaraz (%50,5) mutilek baino (%15,8). DBHn, aldiz, bien artean aldeak nabarmen jaisten dira eta gainera mutilak dira euskaraz gehiago egiten dutenak (%19,0 mutilen artean, %12,2 nesken artean).

**Eskola erabilera (kale neurketa)**

| | LMH | | DBH | |
|---|---|---|---|---|
| | Neskak | Mutilak | Neskak | Mutilak |
| Euskaraz | 50,5 | 15,8 | 12,2 | 19,0 |
| Gaztelaniaz | 49,5 | 81,6 | 87,8 | 81,0 |
| Beste hizkuntza bat | 0,0 | 2,6 | 0,0 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 101 | 152 | 90 | 116 |

**Iturria:** Soraluzeko haur eta gaztetxoen hizkuntza erabilera, Kale Neurketa, 2015



Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

# 4 AZTERTUTAKO IKASLEEN EZAUGARRIAK

## 4.1. IKASMAILA

Aztertutako ikasleen lagina unibertsoaren banaketarekin ia bat dator. Hala, aurrez aipatu bezala, datu ofizialen sorrera data eta inkestak biltzeko daten arteko aldearen ondorioz, unitate bat gehiago du DBHk.

**Ikasmaila**

| | Unibertsoa | | Lagina | |
|---|---|---|---|---|
| | Maiztasuna | Ehunekoa (%) | Maiztasuna | Ehunekoa (%) |
| HH | 129 | 27,1 | 124 | 26,8 |
| LMH | 234 | 49,2 | 224 | 48,5 |
| DBH | 113 | 23,7 | 114 | 24,7 |
| **Guztira** | **476** | **100,0** | **462** | **100,0** |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

## 4.2. EREDUA

Unibertsoan bezala, laginean ere D ereduko ikasleak dira nagusi (%97,8). Honetan ere, ofizialki B ereduan daudenak baino gehiago ageri dira laginean.

**Eredua**

| | Unibertsoa | | Lagina | |
|---|---|---|---|---|
| | Maiztasuna | Ehunekoa (%) | Maiztasuna | Ehunekoa (%) |
| B eredua | 4 | ,8 | 10 | 2,2 |
| D eredua | 509 | 99,2 | 452 | 97,8 |
| **Guztira** | **513** | **100,0** | **462** | **100,0** |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

## 4.3. SEXUA

Sexuari dagokionez laginean gizonen aldeko desoreka dago, HH eta LMH mailetan nagusiki. DBHn ere emakumeen proportzioa unibertsoko portzentajearen azpitik dago.

**Sexua**

| | Unibertsoa | | |
|---|---|---|---|
| | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
| HH | 24,6 | 12,5 | 12,1 |
| LMH | 50,2 | 27,2 | 23,0 |
| DBH | 25,2 | 10,1 | 15,1 |
| **Guztira** | **100,0** | **49,8** | **50,2** |
| N= 504 | | | |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015

**Sexua**

| | Lagina | | |
|---|---|---|---|
| | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
| HH | 26,8 | 14,1 | 12,8 |
| LMH | 51,1 | 30,5 | 20,6 |
| DBH | 22,1 | 10,2 | 11,9 |
| **Guztira** | **100,0** | **54,8** | **45,2** |
| n=462 | | | |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

## 4.4. GURASOEN SORLEKUA

Jatorri desberdinetako gurasoak dituzten ikasleak ari dira ikasten gaur egun Soraluzeko ikastetxeetan. Gaiaren inguruan egindako galderei buruzko emaitzak bere horretan aurkezten ditugu ondorengo taulan.

Hamar ikasletik seik Euskal Herrian jaiotako gurasoak dituzte, zenbat eta haur gazteagoak, orduan eta altuagoa da portzentaje hori (HHn %68,2). Beste hamar ikasletik bi guraso biak Estatuan jaioak dituzten haurrak dira, LMHn aurkitzen dugularik jatorriaren araberako guraso tipologia honen portzentajerik altuena (%22,3). Jarraian, gurasoetako bat Euskal Herrian eta bestea Estatuan jaiotakoa duten haurrak adin tarterik nagusienean daude nabarmenago (DBHn %12,5), baina alde nabarmenik gabe. Azkenik, oso kopuru txikia da bi gurasoak Estatutik kanpo jaioak dituzten haurrena eta nagusiki haur horiek DBHn ari dira ikasten galdetegia bete denean.

**Gurasoen sorlekua**

| | Guztira | HH | LMH | DBH |
|---|---|---|---|---|
| Gurasoak Euskal Herrian | 60,6 | 68,2 | 61,7 | 57,7 |
| Guraso bat Euskal Herrian bestea Estatuan | 12,7 | 10,9 | 11,7 | 12,5 |
| Gurasoak Estatuan | 21,6 | 19,1 | 22,3 | 19,2 |
| Gurasoak Estatutik kanpo | 3,8 | 1,8 | 3,4 | 6,7 |
| Beste egoerak | 1,4 | 0,0 | 1,0 | 3,8 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 292 | 110 | 206 | 104 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



## 4.5. LEHEN HIZKUNTZA

Ikasleen lehen hizkuntzari dagokionean, gurasoek erantzun dutenaren arabera, euskara soilik izan dutenen kopurua gaztelania izan dutenen gainetik badago ere, oso parean daude biak (%32,5 eta %30,9), baina euskara lehen hizkuntzen artean izan dutenak, guztira, erdia baino gehiago dira (%55,5). Ikasleen adin tarteei dagokionez, zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta gehiagok izan du euskara lehen hizkuntzatzat. Azpimarratzekoa da, aldi berean, lehen hizkuntzatzat hirugarren hizkuntza bat izan dutenen kopurua, bereziki HHn (%17,0) aurkitu dugula.

**Lehen hizkuntza**

| | Guztira | HH | LMH | DBH |
|---|---|---|---|---|
| Euskara | 32,5 | 42,0 | 29,7 | 28,2 |
| Euskara eta gaztelania | 23,0 | 24,1 | 23,1 | 21,8 |
| Gaztelania | 30,9 | 17,0 | 33,0 | 40,9 |
| Beste bat | 13,6 | 17,0 | 14,2 | 9,1 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 434 | 112 | 212 | 110 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



# 5 HIZKUNTZA GAITASUNAK ETA GAITASUN ERLATIBOA

## 5.1. IKASLEEN HIZKUNTZA GAITASUNA (EUSKARA)

### 5.1.1. Euskaraz ulertu

Ikasleei eta irakasleei galdetu zaie ikasleek nola ulertzen duten euskara. Batzuek edo besteek erantzun, aldeak ez dira handiak eta dauden alde txiki horiek ikasleek euren gaitasuna irakasleek baino zertxobait beherago ikusten dutelako da. Dena den, metodologia oharretan (2.atala) azaldu dugunez, analisirako irakasleen erantzunak erabiliko ditugu.

Horrela, Haur Hezkuntzako eta DBHko ikasleak dira hobekien moldatzen direnak euskara ulertzeko orduan. 3/4ak baino gehiagok ongi ulertzen dute. LMHko ikasleen artean kopuru hori pixka bat jaitsi egiten da (ikasleak edo irakasleak erantzun, berdin). Kasu horretan, euskara nahiko ongi ulertzen dutela esaten dutenen proportzioa da handitzen dena (%21-23 bueltan).

**Zenbateraino dakizu euskaraz? Ulertu (irakasleen erantzuna)**

| | Guztira | HH | LMH | DBH |
|---|---|---|---|---|
| Ongi | 74,7 | 76,4 | 73,0 | 76,3 |
| Nahiko ongi | 18,3 | 15,4 | 21,2 | 15,8 |
| Zertxobait | 5,7 | 6,5 | 5,4 | 5,3 |
| Hitz batzuk | 1,1 | 1,6 | 0,5 | 1,8 |
| Ezer ez | 0,2 | 0,0 | 0,0 | 0,9 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 459 | 123 | 222 | 114 |






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

### 5.1.2. Euskaraz hitz egin

Euskaraz hitz egiteko ulertzeko baino zailtasun gehiago dituzte ikasleek. Ulertzeko ongi moldatzen direnak ¾ inguru baldin badira, hitz egiteko orduan erdia pasatxo da ongi moldatzen dena. Kopuru hori, irakasleen arabera maila edo ziklo bakoitzean mantentzen da. Hitz egitean ongi moldatzen direnak mantentzen dira baina beste mailetan (hitz batzuk, zertxobait, nahiko ongi…) ikasmailak igo ahala gaitasunak hobetzeko joera antzematen da.

**Zenbateraino dakizu euskaraz? Hitz egin (irakasleen erantzuna)**

| | Guztira | HH | LMH | DBH |
|---|---|---|---|---|
| Ongi | 54,5 | 54,5 | 53,6 | 56,1 |
| Nahiko ongi | 30,1 | 22,8 | 33,8 | 30,7 |
| Zertxobait | 10,2 | 16,3 | 8,6 | 7,0 |
| Hitz batzuk | 3,9 | 4,9 | 3,6 | 3,5 |
| Ezer ez | 1,3 | 1,6 | 0,5 | 2,6 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 459 | 123 | 222 | 114 |






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

## 5.1.3. Ikasleen hizkuntza gaitasuna

Euskaraz ulertu eta hitz egin, nola egiten duten arabera, ikasle elebidunak hamarretik ia bederatzi dira Soraluzen, LMHn eta DBHn. Haur Hezkuntzan ordea, elebidunak ¾ dira. Beste aldera begiratuz, erdaldunen kopuruak oso txikiak badira ere, Haur Hezkuntzatik LMHra jaitsi egiten da, ondoren DBHn berriro ere igoera txiki bat izateko. Edozein kasutan, HHtik aurrera ikasleen euskalduntzea nabarmena da.

**Ikasleen hizkuntza gaitasuna (irakasleen erantzuna)**

| | HH | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Elebiduna | 75,8 | 86,6 | 86,8 |
| Elebidun hartzailea | 22,6 | 12,9 | 10,5 |
| Erdalduna | 1,6 | 0,4 | 2,6 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 124 | 224 | 114 |



## 5.2. IKASLEEN HIZKUNTZA GAITASUNA (GAZTELANIA)

### 5.2.1. Gaztelaniaz ulertu

Gaztelania ulertzeko gaitasuna hobetzen doa ikas zikloan gora egin ahala. Irakasleen arabera HHn %65,8 dira gaztelania ongi ulertzen dutenak. LMHn 83,3 (ikasleen arabera %74,0) eta DBHn %90,4 (ikasleen arabera, %86,0).

Euskara ulertzeko gaitasunarekin alderatuta, euskararen bilakaera egonkorragoa da. Hasiera batean (HHn) euskara ulertzeko gaitasuna gaztelaniaren gainetik dago, gero LMHn berdintzen da eta DBHrako gaztelania ulertzeko gaitasuna gainetik agertzen da.

**Zenbateraino dakizu gaztelaniaz? Ulertu (irakasleen arabera)**

| | Guztira | HH | LMH | DBH |
|---|---|---|---|---|
| Ongi | 80,5 | 65,8 | 83,3 | 90,4 |
| Nahiko ongi | 13,2 | 18,3 | 12,6 | 8,8 |
| Zertxobait | 4,2 | 7,5 | 4,1 | 0,9 |
| Hitz batzuk | 1,8 | 6,7 | 0,0 | 0,0 |
| Ezer ez | 0,4 | 1,7 | 0,0 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 456 | 120 | 222 | 114 |



### 5.2.2. Gaztelaniaz hitz egin

Gaztelaniaz hitz egiteko gaitasunaren inguruan, joera errepikatzen da. Irakasleek emandako erantzunen arabera, gaztelaniaz ulertu eta hitz egiteko gaitasunen arteko aldea ikas zikloetan aurrera egin ahala txikitzen da, DBHn bi gaitasunek bat egin arte.

**Zenbateraino dakizu gaztelaniaz? Hitz egin (irakasleen arabera)**

| | Guztira | HH | LMH | DBH |
|---|---|---|---|---|
| Ongi | 68,3 | 46,2 | 68,3 | 91,2 |
| Nahiko ongi | 21,8 | 27,7 | 26,2 | 7,0 |
| Zertxobait | 6,8 | 14,3 | 5,4 | 1,8 |
| Hitz batzuk | 1,1 | 4,2 | 0,0 | 0,0 |
| Ezer ez | 2,0 | 7,6 | 0,0 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 454 | 119 | 221 | 114 |






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

## 5.3. HIZKUNTZA GAITASUN ERLATIBOA

### 5.3.1. Zein hizkuntzatan ULERTU errazago

Irakasleen erantzunak hiru zikloetan aztertuta, bi hizkuntzak maila berdinean menperatzeko joera gero eta indartsuagoa antzematen da. Horrela, HHn %57,5 dira multzo hori osatzen dutenak. LMHn %68,5 eta DBHn %78,9. Joera hori, bereziki, euskaraz erraztasun gehiago duten ikasleen multzoa txikitzetik elikatzen da. Haur Hezkuntzan euskaraz errazago hitz ulertzen duten ikasleak %26,7 dira. DBHn %1,8ra jaitsi da multzo hori, tartean, LMHn, %9,5 direlarik.

**Orokorrean zein hizkuntzatan ulertzen duzu erraztasun handiagoz? (irakasleen erantzuna)**

| | Guztira | HH | LMH | DBH |
|---|---|---|---|---|
| Euskaraz errazago | 12,1 | 26,7 | 9,5 | 1,8 |
| Bi hizkuntzetan erraztasun berberaz | 68,2 | 57,5 | 68,5 | 78,9 |
| Gaztelaniaz errazago | 19,7 | 15,8 | 22,1 | 19,3 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 456 | 120 | 222 | 114 |



### 5.3.2. Zein hizkuntza HITZ EGIN errazago

Zein hizkuntzan hitz egiten duten errazago galdetuta, irakasleen erantzunetan joera argi bat ikusten da: HHko ikasleek euskaraz erraztasun handiago dute eta ikasmailan gora egin ahal erraztasun hori gaztelaniaren aldera aldatzen da. Horrela DBHn erdiak baino gehiagok (%51,8) gaztelaniaz moldatzen dira hobeto hitz egiteko orduan.

**Zein hizkuntzatan hitz egin errazago (irakasleen erantzuna)**

| | Guztira | HH | LMH | DBH |
|---|---|---|---|---|
| Euskaraz errazago | 28,1 | 42,0 | 26,6 | 16,7 |
| Bietan erraztasun berberaz | 25,7 | 19,3 | 26,1 | 31,6 |
| Gaztelaniaz errazago | 45,7 | 37,0 | 47,3 | 51,8 |
| Beste | 0,4 | 1,7 | 0,0 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 455 | 119 | 222 | 114 |






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

### 5.3.3. Hizkuntza gaitasun erlatiboa

Zuzenean emandako erantzunetan oinarrituta, ikasleen hizkuntza gaitasunaren sailkapen xeheagoa dakargu taulara. Elebidunak errazago zein hizkuntzatan hitz egiten duen kontuan hartuta hiru azpi kategoriatan sailkatuta, alegia.

**Hizkuntza gaitasun erlatiboa (irakasleen erantzuna)**

| | Guztira | HH | LMH | DBH |
|---|---|---|---|---|
| Euskal elebiduna | 27,7 | 40,3 | 26,3 | 16,7 |
| Elebidun orekatua | 25,1 | 18,5 | 25,4 | 31,6 |
| Erdal elebiduna | 31,0 | 16,9 | 34,8 | 38,6 |
| Elebidun hartzailea | 14,9 | 22,6 | 12,9 | 10,5 |
| Erdalduna | 1,3 | 1,6 | 0,4 | 2,6 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 462 | 124 | 224 | 114 |

Irakasleen ustez, elebidun kopuru totala txikiena bada ere, Haur Hezkuntzan dago euskal elebidun kopururik altuena (%40,3), baina baita elebidun hartzaile kopuru altuena ere (%22,6), hots, zerbait edo ongi ulertzeko gai diren arren, hitz egiteko gai ez direnak. Haurrek adinean gora egin ahala, euskal elebidun gutxiago eta elebidun orekatu zein erdal elebidun gehiago daudela irizten diote. Eta Haur Hezkuntzan izan ezik, beste bi mailetan erdal elebidunak nagusi direla erantzuten dute.

Eranskinetan ikus daitekeen moduan, batetik, ikasle eta irakasleen hautemateen arteko desberdintasunik agerikoena LMHn elebidun orekatuen eta erdal elebidunen artean aurkitzen dugu. Izan ere, irakasleek erdal elebiduntzat jotzen dituzten hainbat ikaslek euren burua elebidun orekatutzat dute. Euskal elebidunen kopurua ere altuagoa da ikasleen artean bi segmentuen balorazioak ditugunean.

Bestalde, eranskinei erreparatuz, ikasleek erantzun dutenaren arabera, elebidun kopuru totala antzekoa da bi mailetan (LMHn altuxeagoa), baina azpi multzoen banaketan bada alderik; elebidun orekatuak euskal elebidunak baino gehiago direla bi mailetako ikasleek berdin uste duten arren, DBHkoen artean erdal elebidunak dira nagusi beste bien gainetik eta LMHkoen artean, aldiz, elebidunen artean gutxiengoa dira hauek (%20,5).






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

## 5.4. HIZKUNTZA GAITASUN ERLATIBOA, HAINBAT ALDAGAIREN ARABERA

Jarraian irakasleek emandako erantzunetan oinarrituta zehaztutako ikasleen hizkuntza gaitasun erlatiboa hainbat aldagai soziodemografiko eta linguistikorekin gurutzatuta aztertuko ditugu, ikasleak mailaka segmentatuta.

### 5.4.1. Sexua

| | HH | | LMH | | DBH | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea |
| Euskal elebiduna | 36,9 | 44,1 | 20,9 | 34,4 | 25,9 | 8,3 |
| Elebidun orekatua | 12,3 | 25,4 | 22,4 | 30,0 | 31,5 | 31,7 |
| Erdal elebiduna | 16,9 | 16,9 | 38,8 | 28,9 | 27,8 | 48,3 |
| Elebidun hartzailea | 32,3 | 11,9 | 17,9 | 5,6 | 9,3 | 11,7 |
| Erdalduna | 1,5 | 1,7 | 0,0 | 1,1 | 5,6 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 65 | 59 | 134 | 90 | 54 | 60 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015




Hiru mailetako neskatilen artean, mutikoen artean baino elebitasun portzentaje altuagoa dago, batez ere Haur Hezkuntzako zikloan (20,2 puntukoa).

Haur Hezkuntzan izan ezik, emakume elebidunen artean euskaraz errazago aritzen direnak dira nagusi. Gizonezkoen artean, berriz, mailaka aldatu egiten da kopuru altuena duen hiztun perfila; haur hezkuntzan, emakumeekin gertatu bezala, euskaraz errazago hitz egiten dutenak leudeke nagusiki, LMHn erdaraz hobeto moldatzen direnak eta DBHn, aurreko bietan bezain nabarmena ez bada ere, bi hizkuntzetan berdin egiteko gai diren elebidunen aldeko desoreka dago.

### 5.4.2. Lehen hizkuntza

Euskara lehen hizkuntza izan dutenen artean, duten hizkuntza gaitasunak euskararen aldeko desoreka izatetik euskara eta gaztelaniaren arteko oreka izatera da joera ikasmailan gora egin ahala. HHn euskara lehen hizkuntza izan duten hamarretik zortzi euskal elebidunak dira, LMHn zazpi eta DBHn bost.

Beste aldean, gaztelania lehen hizkuntza izan dutenen artean, HHn gehiengoa elebidun hartzaileak dira (%52,6). LMHn eta DBHn,berriz, multzo hori txikitu eta erdal elebidunena handitzen da, %60 gainditUz. Beraz, gaztelania lehen hizkuntza dutenen artean hasiera batean zailtasun handiekin aurkitzen dira euskararen aurrean, ondoren elebidun bihurtzen dira nahiz eta gaztelaniaren aldeko desoreka duten eta DBHn egoera hori mantentzen da.

Tartean, euskara eta gaztelania lehen hizkuntzak izan dituztenak, HHn elebidun orekatuak dira gehienak (%48,1). Ondoren desoreka sortzen da; LMHn elebidun orekatuak eta erdal elebidunak, biak portzentaje berdinarekin dira multzo nagusiak (%38,8), baina euskal elebidunen proportzioa ere nabarmena da (%18,4). DBHn ere elebidun orekatu eta erdal elebidunek pisu bera dute eta nagusi dira (%41,7) eta euskal elebidunena jaitsi egiten da (%12,5era).

| | HH | | | | LMH | | | | DBH | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Euskara | Euskara eta gaztelania | Gaztelania | Beste bat | Euskara | Euskara eta gaztelania | Gaztelania | Beste bat | Euskara | Euskara eta gaztelania | Gaztelania | Beste bat |
| Euskal elebiduna | 80,9 | 3,7 | 10,5 | 26,3 | 71,4 | 18,4 | 0,0 | 13,3 | 51,6 | 12,5 | 0,0 | 0,0 |
| Elebidun orekatua | 14,9 | 48,1 | 5,3 | 5,3 | 23,8 | 38,8 | 17,1 | 20,0 | 41,9 | 41,7 | 20,0 | 20,0 |
| Erdal elebiduna | 2,1 | 29,6 | 31,6 | 10,5 | 3,2 | 38,8 | 62,9 | 26,7 | 6,5 | 41,7 | 64,4 | 20,0 |
| Elebidun hartzailea | 2,1 | 18,5 | 52,6 | 47,4 | 1,6 | 4,1 | 20,0 | 36,7 | 0,0 | 4,2 | 13,3 | 40,0 |
| Erdalduna | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 10,5 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 3,3 | 0,0 | 0,0 | 2,2 | 20,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 47 | 27 | 19 | 19 | 63 | 49 | 70 | 30 | 31 | 24 | 45 | 10 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



%100,0
%90,0
%80,0
%70,0
%60,0
%50,0
%40,0
%30,0
%20,0
%10,0
%0,0
Euskara
Euskara eta gaztelania
Gaztelania
Beste bat
HH
LMH
DBH
Euskal elebiduna
Elebidun orekatua
Erdal elebiduna
Elebidun hartzailea
Erdalduna

### 5.4.3. Gurasoen hizkuntza gaitasuna

Gurasoen euskara gaitasunak eragin handia du haien seme-alaben euskara gaitasunean. Eragin hori ordea, ikasmailan gora egin ahala, gero eta txikiagoa da. Haur hezkuntzan bi gurasoak elebidunak direnean %65en kasuan seme-alabak euskal elebidunak dira. DBHn %44,4 jaisten da kopuru hori, ezaugarri berdinak dituzten kasuen proportzioa. Guraso bat elebiduna bestea hartzailea dutenetan, %28,6tik %25,0era jaisten da.

Guraso bat elebiduna bestea hartzailea edo bi gurasoak elebidun hartzaileak direnean (gurasoen tipologian multzo nagusienetakoak), LMH eta DBHko datuak aztertuta, gurasoen hizkuntza gaitasunean dagoen aldea seme-alabenetan islatzen da. Horrela, guraso bat elebiduna eta bestea hartzailea denean, ikaslea elebidun orekatua da kasuen %39,5ettan LMH eta DBHn %40,0tan. Bi gurasoak elebidun hartzaileak direnean elebidun orekatuak diren ikasleak %23,7 eta %26,1 dira LMHn eta DBHn, hurrenez hurren.

| | HH | | | | | LMH | | | | | DBH | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guraso elebidunak | Guraso bat elebiduna bestea hartzailea | Bi gurasoak elebidun hartzaileak | Guraso bat elebidun hartzailea bestea erdalduna | Bi gurasoak erdaldunak | Guraso elebidunak | Guraso bat elebiduna bestea hartzailea | Bi gurasoak elebidun hartzaileak | Guraso bat elebidun hartzailea bestea erdalduna | Bi gurasoak erdaldunak | Guraso elebidunak | Guraso bat elebiduna bestea hartzailea | Bi gurasoak elebidun hartzaileak | Guraso bat elebidun hartzailea bestea erdalduna | Bi gurasoak erdaldunak |
| Euskal elebiduna | 64,7 | 28,6 | 15,4 | 0,0 | 21,4 | 70,3 | 21,1 | 2,6 | 0,0 | 9,4 | 44,4 | 25,0 | 4,3 | 0,0 | 0,0 |
| Elebidun orekatua | 23,5 | 28,6 | 15,4 | 11,1 | 0,0 | 18,8 | 39,5 | 23,7 | 20,8 | 15,6 | 44,4 | 40,0 | 26,1 | 18,2 | 0,0 |
| Erdal elebiduna | 7,8 | 23,8 | 30,8 | 22,2 | 7,1 | 9,4 | 34,2 | 60,5 | 62,5 | 31,3 | 11,1 | 25,0 | 60,9 | 81,8 | 50,0 |
| Elebidun hartzailea | 3,9 | 19,0 | 38,5 | 66,7 | 57,1 | 1,6 | 5,3 | 13,2 | 16,7 | 40,6 | 0,0 | 10,0 | 8,7 | 0,0 | 30,0 |
| Erdalduna | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 14,3 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 3,1 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 20,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 51 | 21 | 13 | 9 | 14 | 64 | 38 | 38 | 24 | 32 | 27 | 20 | 23 | 11 | 10 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015


%100,0
%90,0
%80,0
%70,0
%60,0
%50,0
%40,0
%30,0
%20,0
%10,0
%0,0
64,7
23,5
7,8
28,6
28,6
23,8
19,0
15,4
15,4
30,8
38,5
11,1
22,2
66,7
21,4
57,1
14,3
70,3
18,8
9,4
21,1
39,5
34,2
5,3
23,7
60,5
13,2
2,6
20,8
62,5
16,7
9,4
15,6
31,3
40,6
3,1
44,4
44,4
11,1
25,0
40,0
25,0
10,0
4,3
26,1
60,9
8,7
18,2
81,8
50,0
30,0
20,0
Guraso elebidunak
Guraso bat elebiduna bestea hartzailea
Bi gurasoak elebidun hatzaileak
Guraso bat elebidun hartzailea bestea erdalduna
Bi gurasoak erdaldunak
HH
LMH
DBH
Euskal elebiduna
Elebidun orekatua
Erdal elebiduna
Elebidun hartzailea
Erdalduna

### 5.4.4. Gurasoen sorlekua

Bi gurasoak Euskal Herrian jaioak izateak, hasiera batean, eragin handia du ikasleen euskara gaitasunean. HHn euskal elebidun dira bi gurasoak Euskal Herrian jaioak dituztenen %49,3. Eragin hori nabarmen jaisten da ikasleen adina gora egin ahala. LMHko ikasleen artean, %40,92 dira euskal elebidunak eta DBHn %30,0.

Bi gurasoak estatuan jaioak badituzte, hasiera batean, ikasleek euskara gaitasun txikia izatea da arruntena (%52,4 elebidun hartzaile), gerora ordea gero eta euskaldunago izaten dira. Gurasoen jatorriaren tipologia honetako elebidun hartzaileen multzoa jaisten doa ikasleek adinean gora egin ahala (%30,4 LMH eta %25 DBHn), bereziki erdal elebidunen mesedetan (%19,0, %41,3 eta %55, hurrenez hurren).

| | HH | | | LMH | | | DBH | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gurasoak Euskal Herrian | Guraso bat Euskal Herrian bestea Estatuan | Gurasoak Estatuan | Gurasoak Euskal Herrian | Guraso bat Euskal Herrian bestea Estatuan | Gurasoak Estatuan | Gurasoak Euskal Herrian | Guraso bat Euskal Herrian bestea Estatuan | Gurasoak Estatuan |
| Euskal elebiduna | 49,3 | 33,3 | 19,0 | 40,9 | 0,0 | 6,5 | 30,0 | 7,7 | 0,0 |
| Elebidun orekatua | 21,3 | 25,0 | 0,0 | 26,0 | 29,2 | 19,6 | 36,7 | 30,8 | 20,0 |
| Erdal elebiduna | 16,0 | 8,3 | 19,0 | 26,8 | 62,5 | 41,3 | 31,7 | 53,8 | 55,0 |
| Elebidun hartzailea | 13,3 | 33,3 | 52,4 | 6,3 | 8,3 | 30,4 | 1,7 | 7,7 | 25,0 |
| Erdalduna | 0,0 | 0,0 | 9,5 | 0,0 | 0,0 | 2,2 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 75 | 12 | 21 | 127 | 24 | 46 | 60 | 13 | 20 |

Oharra: Gurasoen bestelako sorlekuen araberako informaziorik ez dago gurutzaketa honetarako.

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015


%100,0
%90,0
%80,0
%70,0
%60,0
%50,0
%40,0
%30,0
%20,0
%10,0
%0,0
0,0
13,3
16,0
21,3
49,3
0,0
33,3
8,3
25,0
33,3
9,5
52,4
19,0
0,0
19,0
0,0
6,3
26,8
26,0
40,9
0,0
8,3
62,5
29,2
0,0
2,2
30,4
41,3
19,6
6,5
0,0
1,7
31,7
36,7
30,0
7,7
53,8
30,8
7,7
0,0
25,0
55,0
20,0
0,0
Gurasoak Euskal Herrian
Guraso bat Euskal Herrian bestea Estatuan
Gurasoak Estatuan
HH
LMH
DBH
Euskal elebiduna
Elebidun orekatua
Erdal elebiduna
Elebidun hartzailea
Erdalduna

## 5.5. SENITARTEKOEN HIZKUNTZA GAITASUNA

### 5.5.1. Aitaren hizkuntza gaitasuna

Aiten ia erdiek ulertzen dute ongi euskaraz eta beste ia laurdenek zerbait. Gainerakoek ezer ulertzen ez dutela diote. Mailaka segmentatuta, euskara ulertzen duten portzentajearen gainetik daude Haur Hezkuntzako haurren aita direnak eta ezer ulertzen ez dutenen portzentajea altuagoa da Lehen Mailako Hezkuntzako aiten multzoan.

Ulermen mailaren azpitik daude hitz egiteko gai diren aiten kopuruak, eta aita guztiak kontuan hartuta, gehiago dira ezer ez dutenak hitz egiten ongi hitz egiten dutenak baino. Mailaka aztertuta, ordea, desberdintasunak ageri dira Haur Hezkuntzako seme-alabak dituztenen artean gehiago baitira ongi hitz egiten duten aitak (%52,7).

Euskaraz hitz egiteko gaitasunaren parekoa da irakurtzeko gaitasunaren araberako banaketa. Dena den zertxobait altuagoa da ongi irakurtzeko gai direnen kopurua (%42,1) eta zerbait hitz egiteko gai direnen ondoan, zerbait irakurtzeko gai direnak gutxixeago dira (%16,8).

| | Guztira | HH | LMH | DBH |
|---|---|---|---|---|
| **Zenbateraino ulertzen du euskaraz aitak?** | | | | |
| Ongi | 48,5 | 63,4 | 43,5 | 47,6 |
| Zerbait | 23,9 | 14,3 | 25,1 | 28,6 |
| Ezer ez | 27,6 | 22,3 | 31,4 | 23,8 |
| **Zenbateraino hitz egiten du euskaraz aitak?** | | | | |
| Ongi | 38,5 | 52,7 | 34,8 | 34,0 |
| Zerbait | 22,3 | 19,6 | 24,2 | 24,3 |
| Ezer ez | 39,2 | 27,7 | 41,1 | 41,7 |
| **Zenbateraino irakurtzen du euskaraz aitak?** | | | | |
| Ongi | 42,1 | 54,5 | 39,1 | 39,4 |
| Zerbait | 16,8 | 17,0 | 17,9 | 16,3 |
| Ezer ez | 41,1 | 28,6 | 43,0 | 44,2 |
| **Zenbateraino idazten daki euskaraz aitak?** | | | | |
| Ongi | 37,6 | 51,8 | 35,6 | 31,7 |
| Zerbait | 19,3 | 17,9 | 20,0 | 18,8 |
| Ezer ez | 43,1 | 30,4 | 44,4 | 49,5 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 290 | 112 | 205 | 101 |

**Iturria:** Soraluzeko haur eta gaztetxoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015

Lau trebetasunen artean ongi moldatzen direnen portzentajerik baxuena dugu idaztearena. Era berean, trebetasun horietatik gai ez direnen kopurutik altuena idazmenean daukagu. Gainera, mintzatzeko trebetasunean baino are nabarmenago ezer ez dakitenak ongi dakitenen gainetik. Hala, ongi moldatzen direnen artean eta gai ez direnen artean desberdintasunik handiena ulermenean dago (ongi moldatzen direnen alde kasu honetan); eta pentsatu ohi denaren aurka, idazmenean dago desberdintasun nabarmenagoa mintzamenean baino.



Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

Mailaka aztertuta, gainerako trebetasunekin gertatu bezala, Haur Hezkuntzako aitak besteengandik bereizten dira euskaraz ongi idazteko gai direnak erdiak baino gehiago ezer ez idazteko gai direnen ia bikoitza izanik. Izan ere, LMH eta DBHko ikasleen aiten artean kontrakoa da banaketa (ia erdiak dira ezer idazteko gai ez direnak, ongi idazteko gai direnen kopuruaren gainetik).

**ULERTU**




**HITZ EGIN**




**IRAKURRI**




**IDATZI**



## AITAREN HIZKUNTZA GAITASUNA

Lau trebetasunetan adierazitako gaitasun maila konbinatuta (ikus ohar metodologikoak) aitaren hizkuntza gaitasuna kalkulatu dugu eta honen araberako sailkapena dugu honakoa:

Soraluzeko ikastetxean ikasten diharduten haurren aiten gehiengoa (%38,9) elebiduna bada ere, heren bat elebidun hartzailea da eta beste %27,4 erdalduna.

Mailaka, ordea, desberdintasunak ageri dira; haur gazteenen aiten artean dugu elebidun kopururik altuena (%52,7)  zein erdaldunen kopururik baxuena (%22,3). LHMko aiten hiru perfil hauen araberako banaketa orekatua da.

| | Guztira | HH | LMH | DBH |
|---|---|---|---|---|
| Elebiduna | 38,9 | 52,7 | 35,0 | 34,7 |
| Elebidun hartzailea | 33,7 | 25,0 | 34,0 | 41,6 |
| Erdalduna | 27,4 | 22,3 | 31,1 | 23,8 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 288 | 112 | 206 | 101 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

### 5.5.2. Amaren hizkuntza gaitasuna

Amen ia bi herenek ulertzen dute ongi euskaraz eta beste ia laurdenak zerbait. Gainerakoek ezer ulertzen ez dutela diote. Mailaka segmentatuta, euskara ulertzen duten portzentajearen gainetik daude Haur Hezkuntzako haurren ama direnak eta ezer ulertzen ez dutenen portzentajea berdintsua da hiru mailetan.

Ulermen mailaren azpitik daude hitz egiteko gai diren amen kopuruak, hala ere, eta aiten datuen kontrako norabidean, ama guztiak kontuan hartuta, gehiago dira ongi hitz egiten dutenak ezer ez dutenak hitz egiten baino. Mailaka aztertuta, ordea, desberdintasunak ageri dira Haur Hezkuntzako seme-alabak dituztenen artean gehiago baitira ongi hitz egiten duten amak (%60,4) DBHn baino (%45,6).

| | Guztira | HH | LMH | DBH |
|---|---|---|---|---|
| **Zenbateraino ulertzen du euskaraz amak?** | | | | |
| Ongi | 60,6 | 72,1 | 60,1 | 52,9 |
| Zerbait | 22,5 | 14,4 | 23,6 | 29,4 |
| Ezer ez | 17,0 | 13,5 | 16,3 | 17,6 |
| **Zenbateraino hitz egiten du euskaraz amak?** | | | | |
| Ongi | 50,7 | 60,4 | 48,6 | 45,6 |
| Zerbait | 21,0 | 16,2 | 22,6 | 18,4 |
| Ezer ez | 28,3 | 23,4 | 28,8 | 35,9 |
| **Zenbateraino irakutzen du euskaraz amak?** | | | | |
| Ongi | 58,3 | 67,6 | 59,4 | 48,0 |
| Zerbait | 14,6 | 13,5 | 15,5 | 15,7 |
| Ezer ez | 27,1 | 18,9 | 25,1 | 36,3 |
| **Zenbateraino idazten daki euskaraz amak?** | | | | |
| Ongi | 52,4 | 65,8 | 52,2 | 41,2 |
| Zerbait | 19,4 | 12,6 | 20,8 | 23,5 |
| Ezer ez | 28,1 | 21,6 | 27,1 | 35,3 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 288 | 111 | 207 | 102 |

**Iturria:** Soraluzeko haur eta gaztetxoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015

Euskaraz hitz egiteko gaitasunaren gainetik dago irakurtzeko gaitasuna, zertxobait altuagoa delarik ongi irakurtzeko gai direnen kopurua (%58,3) eta zerbait hitz egiteko gai direnen ondoan, zerbait irakurtzeko gai direnak gutxixeago (%14,6).

Euskaraz idazteko gaitasuna lau trebetasunen artean ongi moldatzen direnen portzentajerik baxuena dugu, hitz egitearen atzetik.

Mailaka aztertuta, gainerako trebetasunekin gertatu bezala, Haur Hezkuntzako amak besteengandik bereizten dira euskaraz ongi idazteko gai direnen proportzioa altuagoa delako. Proportzio hori jaisten doa ikasmailan gora egin ahala.



Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

**ULERTU**




**HITZ EGIN**




**IRAKURRI**




**IDATZI**



**AMAREN HIZKUNTZA GAITASUNA**

Aitekin egin bezala, lau trebetasunetan adierazitako gaitasun maila konbinatuta amaren hizkuntza gaitasuna kalkulatu dugu eta honen araberako sailkapena dugu honakoa:

Soraluzeko ikastetxean ikasten diharduten haurren amen gehiengoa (%50,7) elebiduna bada ere, heren bat elebidun hartzailea da eta beste %17,0 erdalduna. Aiten kasuan baino perfil euskaldunagoa alegia.

Mailaka, ordea, desberdintasunak ageri dira; haur gazteenen amen artean dugu elebidun kopururik altuena (%60,4) zein erdaldunen kopururik baxuena (%13,5). LHM eta DBHko amen hiru perfilen banaketa oso antzekoa da.

**Amaren hizkuntza gaitasuna**

| | Guztira | HH | LMH | DBH |
|---|---|---|---|---|
| Elebiduna | 50,7 | 60,4 | 48,8 | 45,5 |
| Elebidun hartzailea | 32,3 | 26,1 | 34,8 | 36,6 |
| Erdalduna | 17,0 | 13,5 | 16,4 | 17,8 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 288 | 111 | 207 | 101 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

## 5.5.3. Gurasoen hizkuntza gaitasuna, sintesia

Aita eta ama, biak batera hartuta, zein den haien hizkuntza gaitasuna ondoko taulan ikus daiteke. Bi guraso elebidunen presentzia nabarmen handiagoa da HHko ikasleen artean, ia erdia (%47,2). LMHn eta DBHn proportzioa antzekoa da (%30 ingurukoa).Guztietan multzorik handiena bi guraso elebidunak dituztenena da.

Ondoren, gurasoetako bat elebiduna eta bestea hartzailea dutena datoz, HHn eta LMHn. DBHn berriz, bigarren multzo nagusia bi gurasoak elebidun hartzaileak dituztenena da (%25,3).

Euskararen ezagutzarik ez edo oso txikia dutenen portzentajea %25 ingurukoa da orotara. Apur bat nabarmenagoa LMHko gurasoen artean (%28,5era iristen da portzentaje hori).

**Gurasoen hizkuntza gaitasuna**

| | Guztira | HH | LMH | DBH |
|---|---|---|---|---|
| Guraso elebidunak | 34,4 | 47,2 | 32,7 | 29,7 |
| Guraso bat elebiduna bestea hartzailea | 21,9 | 19,4 | 19,4 | 22,0 |
| Bi gurasoak elebidun hartzaileak | 17,8 | 12,0 | 19,4 | 25,3 |
| Guraso bat elebidun hartzailea bestea erdalduna | 11,1 | 8,3 | 12,2 | 12,1 |
| Bi gurasoak erdaldunak | 14,8 | 13,0 | 16,3 | 11,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 270 | 108 | 196 | 91 |

**Iturria:** Soraluzeko haur eta gaztetxoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



### 5.5.4. Anai-arreben hizkuntza gaitasuna

Anai-arreben hiru laurdenek ulertzen dute ongi euskaraz eta beste ia bostenek zerbait. Gainerakoek ezer ulertzen ez dutela diote. Mailaka segmentatuta, euskara ulertzen duten portzentajearen gainetik daude DBHko ikasleen anai-arrebak direnak LMHkoekin alderatua.

**Anai-arrebek euskaraz ulertu**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Ongi | 75,3 | 73,5 | 78,6 |
| Zerbait | 19,8 | 22,2 | 15,3 |
| Ezer ez | 4,9 | 4,3 | 6,1 |

**Anai-arrebek euskaraz hitz egin**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Ongi | 69,2 | 66,9 | 73,5 |
| Zerbait | 23,7 | 27,6 | 16,3 |
| Ezer ez | 7,2 | 5,5 | 10,2 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 279 | 181 | 98 |

**Iturria:** Soraluzeko haur eta gaztetxoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015

Ulermen mailaren azpitik daude hitz egiteko gai diren anai-arreben kopuruak. Hala ere, bi herenetik gora dira euskara ongi ulertzen dutenak LMHko anai-arreben artean eta ia hiru laurden DBHkoen artean. DBHko anai-arreben artean euskara ongi hitz egiten dutenen proportzioa altuagoa da, baita ezer ez hitz egiten dutenena ere.

**ULERTU**




**HITZ EGIN**






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

**ANAI-ARREBEN HIZKUNTZA GAITASUNA**

LMH eta DBHko ikasleen anai-arreben artean bi herenak baino gehiago dira elebidunak, gehiago DBHn LMHn baino. Erdaldunak %5era ez dira iristen guztira. Kopuru hori zertxobait altuagoa da DBHko ikasleen anai-arreben artean LMHko ikasleen anai-arreben artean baino.

**Anai-arreben euskara gaitasuna**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Elebiduna | 68,7 | 66,5 | 72,9 |
| Elebidun hartzailea | 26,5 | 29,6 | 20,8 |
| Erdalduna | 4,7 | 3,9 | 6,3 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 275 | 179 | 96 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

# 6 HIZKUNTZA JABEKUNTZA

## 6.1. IKASLEEN ETA GURASOEN LEHEN HIZKUNTZA

Gurasoek haien seme-alabei transmititzen dieten hizkuntza, esan gabe doa, baldintzatua dagoela haiek ezagutzen dituzten hizkuntzengatik. Horrela, guraso biek euskara lehen hizkuntza izan duten ia guztietan, nahiz eta gaztelania ere izan, euskara transmititu dute. Aldiz, gurasoetako batek euskara lehen hizkuntza izan ez duen kasuetan transmisio hori asko jaisten da. Horrela, gurasoetako batek euskara eta besteak gaztelania izan dutenean euskara lehen hizkuntza izan dute seme-alaben %48,1ak, eta gurasoetako batek bi hizkuntzak eta besteak gaztelania izan dutenetan seme-alaben %12,0ak.

**Gurasoek eduki zuten lehen hizkuntza eta ikasleek eduki dutena**

| | Guztira | Biak euskara | Batek euskara, besteak biak | Batek euskara, besteak gaztelania | Batek biak, besteak gaztelania | Biak gaztelania | Beste aukerak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Euskara | 32,5 | 98,7 | 83,3 | 48,1 | 12,0 | 1,4 | 9,4 |
| Biak batera | 23,0 | 1,3 | 16,7 | 48,1 | 72,0 | 19,1 | 13,5 |
| Gaztelania | 30,9 | 0,0 | 0,0 | 3,7 | 16,0 | 79,4 | 15,6 |
| Beste bat | 13,6 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 61,5 |
| ***Guztira*** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 434 | 79 | 12 | 81 | 25 | 141 | 96 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

## 6.2. IKASLEEN HIZKUNTZA GAITASUNA ETA LEHEN HIZKUNTZA

Lehen hizkuntza euskara jaso duten ikasleen %70,2k euskal elebidun dira.

Lehen hizkuntza gaztelania izan dutenen artean elebidunak dira gehienak (%76,9). Hau da, kontuan hartuta Soraluzen D eredua dela (ia) erabatekoa, ikasle horien eskola bidezko euskara jabekuntza nabarmena da.

Lehen hizkuntza bakarra gaztelania izan eta egun elebidun diren ikasle horien artean erdal elebidunak dira nagusi (%59,0) eta oso gutxi euskal elebidunak (%1,5).

Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania izan dutenen artean multzo nagusia (%42,0) elebidun orekatuena da, baina oso gertutik jarraitzen diete erdal elebidunek (%37,0).

**Ikasleen hizkuntza gaitasuna eta lehen hizkuntza**

| | Guztira | Euskara | Biak batera | Gaztelania | Beste bat |
|---|---|---|---|---|---|
| Euskal elebiduna | 28,3 | 70,2 | 13,0 | 1,5 | 15,3 |
| Elebidun orekatua | 24,9 | 24,8 | 42,0 | 16,4 | 15,3 |
| Erdal elebiduna | 30,6 | 3,5 | 37,0 | 59,0 | 20,3 |
| Elebidun hartzailea | 14,7 | 1,4 | 8,0 | 22,4 | 40,7 |
| Erdalduna | 1,4 | 0,0 | 0,0 | 0,7 | 8,5 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 434 | 141 | 100 | 134 | 59 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

# 7 HIZKUNTZA ERABILERA

Atal honetan erabilerari buruzko datu xeheak eta tasa esleituak aurkeztuko ditugu. Metodologia atalean azaldu dugu xehe-xehe zein kalkulu egin diren datu esleitu horietara iristeko. Bost multzotan bereizi ditugu jardun eta eremu ezberdinetako erabilera datu esleituak (grisez ageri dira tauletan): Etxea, eskola barrua, eskolaz kanpoko ekintzak, lagunak eta komunikabideak-kultura. Metodologia atalean azaldu dugu, multzo bakoitza zein erabilera-jardun zehatzarekin lotu dugun (erabilera aitarekin, ikaskideekin, klase partikularretan,...). Atal honetako azken taulan datu esleitu guztiak jaso ditugu.

## 7.1. ETXEKO EREMUA

Familia-giroko hizkuntza-ohituren inguruko lau atal bereizi ditugu; familiako kide mota bakoitzari dagozkionak alde batetik, eta familia osoa elkarrekin dagoenean (otorduetan, adibidez) dagokiona bestetik.

Familiako kideei dagozkien ataletako bakoitzean, bestalde, honakoak jaso dira;

- Euskaraz ulertzeko eta hitz egiteko gai diren galdetuta emandako erantzunen arabera kalkulatutako kide bakoitzaren hizkuntza gaitasuna.
- Ikaslearen eta kideetako bakoitzaren arteko elkarrizketak zein hizkuntzatan izaten diren; alde batetik, ikasleek (amarekin, aitarekin eta neba-arrebekin) zein hizkuntzatan egiten duten galdetuta erantzun dutena eta bestetik, gurasoei galdetuta.
- Azkenik, bi aldagai hauek gurutzatu egin dira (hizkuntza gaitasuna eta erabilera).

### 7.1.1. Anai-arrebekiko euskara erabilera

LMH eta DBHko laurden batek beti egiten du euskaraz anai-arrebarekin. Beste %7,1ak gehiago egiten du euskaraz gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean baino. Beste aldean, beti gaztelaniaz egiten dutenak ia beste laurden bat dira (%24,0) eta gaztelaniaz gehiago egiten dutenak %14,5. Beraz, guztira, gaztelaniaz bakarrik edo gehiago egiten dutenak %38,5 osatzen dute, euskaraz bakarrik edo gehiago %33,6 den artean.

LMH eta DBHko ikasleen artean, ez dago alde nabarmenik. Zerbait azpimarratzekotan, DBHkoen artean apur bat handiagoa da euskararen aldeko joera.

Tasa esleituari dagokionean, anai-arreben arteko elkarrizketen %45,1a egiten dira euskaraz Soraluzen.

**Anai-arrebekin euskara erabilera**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 26,5 | 25,9 | 27,6 |
| Gehiago euskaraz | 7,1 | 6,5 | 8,2 |
| Bietara | 19,4 | 21,1 | 16,3 |
| Gehiago gaztelaniaz | 14,5 | 15,1 | 13,3 |
| Beti gaztelaniaz | 24,0 | 22,7 | 26,5 |
| Beste hizkuntza batean | 8,5 | 8,6 | 8,2 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 283 | 185 | 98 |
| Esleitutako erabilera tasa | 45,1 | 45,1 | 45,2 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015




Anai-arreba elebiduna denean %38an egiten dute beti euskaraz. Anai-arreba elebiduna izanda ere, beste hainbestek (%38,9) beti gaztelaniaz edo gehiago gaztelaniaz egiten dute.

Anai-arreba erdalduna denean, euskaren presentzia urria da, baina hala ere badago. %16,7k zertxobait euskaraz egiten dutela erantzun du.

Tasa esleituari erreparatuta, argia da saltoa anai-arreben hizkuntza gaitasunaren arabera. Anai-arreba elebiduna denean elkarrizketen %58a ematen dira euskaraz. Elebidun hartzailea denean portzentaje hori 18,8ra jaisten da eta erdalduna denean 4,2ra.

**Anai-arreben hizkuntza gaitasuna eta haiekin elkarrizketa hizkuntza**

| | Guztira | Elebiduna | Elebidun hartzailea | Erdalduna |
|---|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 26,9 | 38,0 | 2,8 | 0,0 |
| Gehiago euskaraz | 7,3 | 8,6 | 5,6 | 0,0 |
| Bietara | 18,5 | 21,4 | 12,5 | 0,0 |
| Gehiago gaztelaniaz | 14,5 | 11,8 | 22,2 | 16,7 |
| Beti gaztelaniaz | 24,4 | 17,1 | 40,3 | 50,0 |
| Beste hizkuntza batean | 8,4 | 3,2 | 16,7 | 33,3 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 271 | 187 | 72 | 12 |
| Esleitutako erabilera tasa | 45,3 | 58,0 | 18,8 | 4,2 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

### 7.1.2. Hizkuntza erabilera gurasoekin

**IKASLEA AITAREKIN (IKASLEEN ARABERA)**

LMH eta DBHko laurden batek (%27,6) beti egiten du euskaraz aitarekin. Beste %5,7ak gehiago egiten du euskaraz gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean baino. Beste aldean, beti gaztelaniaz egiten dutenak heren bat pasatxo dira (%35,4) eta gaztelaniaz gehiago egiten dutenak %9,0. Beraz, guztira, gaztelaniaz bakarrik edo gehiago egiten dutenek %44,4 osatzen dute, euskaraz bakarrik edo gehiago %33,3 den artean.

LMHko ikasleek ohitura gehiago dute euren aitarekin euskaraz egiteko. Horrela, LMHn %30,0k beti euskaraz egiten duen bitartean, DBHn %23,0 dira. Beti gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean egiten dutenak ordea, LMHn 47,1 dira eta DBHn 50,4.

Tasa esleituari dagokionean ere, aipatutako alde txiki hori nabaritzen da. LMHko ikasle eta aiten arteko elkarrizketen %40,9a dira euskaraz. DBHko ikasle eta aiten artekoen %36,5 ordea.

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 27,6 | 30,0 | 23,0 |
| Gehiago euskaraz | 5,7 | 4,1 | 8,8 |
| Bietara | 10,5 | 10,9 | 9,7 |
| Gehiago gaztelaniaz | 9,0 | 9,5 | 8,0 |
| Beti gaztelaniaz | 35,4 | 32,3 | 41,6 |
| Beste hizkuntza batean | 11,7 | 13,2 | 8,8 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 333 | 220 | 113 |
| Esleitutako erabilera tasa | 39,4 | 40,9 | 36,5 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

## AITA SEME-ALABEKIN (GURASOEN ARABERA)

Galdera berdina erantzun dute gurasoek, beste erantzun aukera batzuk izan dituztela. Kasu honetan LMH eta DBHkoen arteko joerak errepikatzen dira, hau da, zertxobait euskaldunagoa da LMHko ikasle eta aiten arteko giroa DBHkoena baino. Dena dela, kasu honetan HHko datuak ere baditugu eta horiek dira guztietan euskaldunenak. Badirudi ordea, aita eta seme-alaben arteko elkarrizketetan denborarekin gaztelaniak espazioa irabazten duela. Euskararen presentzia %44,6tik %25,5era lehenengo eta gero %20,8ra jaisten da. Gaztelaniarena %26,8tik %48,1 eta %50,9ra.

| | Guztira | HH | LMH | DBH |
|---|---|---|---|---|
| Euskara | 29,3 | 44,6 | 25,5 | 20,8 |
| Gaztelania | 43,2 | 26,8 | 48,1 | 50,9 |
| Biak batera | 14,8 | 12,5 | 13,5 | 19,8 |
| Beste bat | 12,7 | 16,1 | 13,0 | 8,5 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 426 | 112 | 208 | 106 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015




Anai-arrebekin baino nabariagoa da aitaren hizkuntza gaitasuna seme-alabarekin zein hizkuntzan egin erabakitzeko orduan. Tasa esleituei erreparatuta, aita elebiduna denean elkarrizketen %76,9a dira euskaraz. Aita elebidun hartzailea denean heren batera ez da iristen euskara erabilera eta erdalduna denean %6,8.



Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

**Aitaren hizkuntza gaitasuna eta berarekin elkarrizketa hizkuntza**

| | Guztira | Elebiduna | Elebidun hartzailea | Erdalduna |
|---|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 28,4 | 60,0 | 19,0 | 1,5 |
| Gehiago euskaraz | 6,1 | 12,5 | 4,8 | 0,0 |
| Bietara | 10,9 | 8,8 | 16,7 | 6,2 |
| Gehiago gaztelaniaz | 9,2 | 6,3 | 13,1 | 7,7 |
| Beti gaztelaniaz | 34,5 | 12,5 | 41,7 | 52,3 |
| Beste hizkuntza batean | 10,9 | 0,0 | 4,8 | 32,3 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 229 | 80 | 84 | 65 |
| Esleitutako erabilera tasa | 41,1 | 76,9 | 32,7 | 6,8 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

**IKASLEA AMAREKIN (IKASLEEN ARABERA)**

LMH eta DBHko ikasleetan laurden batera ez dira iristen (%23,9) amarekin beti euskaraz egiten dutenak. Aitarekin baino zertxobait baxuagoa da datu hau. Beste %5,5ak gehiago egiten du euskaraz gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean baino. Beste aldean, beti gaztelaniaz egiten dutenak %39,3 dira eta gaztelaniaz gehiago egiten dutenak %8,9. Beraz, guztira, gaztelaniaz bakarrik edo gehiago egiten dutenak %48,2 osatzen dute, euskaraz bakarrik edo gehiago %29,4 den artean.

LMHko ikasleek ohitura gehiago dute euren amarekin euskaraz egiteko. Horrela, LMHn %26,1ak beti euskaraz egiten duen bitartean, DBHn %19,4 dira. Beti gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean egiten dutenak ordea, LMHn 48,6 dira eta DBHn %54,6.

Tasa esleituari dagokionean ere, aipatutako alde txiki hori nabaritzen da. LMHko ikasle eta amaren arteko elkarrizketen %38,2a ematen dira euskaraz. DBHko ikasle eta amen artekoen %31,0 ordea.

**Seme-alaba amarekin hizkuntza erabilera (ikasleen arabera)**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 23,9 | 26,1 | 19,4 |
| Gehiago euskaraz | 5,5 | 5,5 | 5,6 |
| Bietara | 11,0 | 11,9 | 9,3 |
| Gehiago gaztelaniaz | 8,9 | 7,8 | 11,1 |
| Beti gaztelaniaz | 39,3 | 35,3 | 47,2 |
| Beste hizkuntza batean | 11,3 | 13,3 | 7,4 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 326 | 218 | 108 |
| Esleitutako erabilera tasa | 35,8 | 38,2 | 31,0 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



**IKASLEA AMAREKIN (GURASOEN ARABERA)**

Aitekin bezala, amekin ere galdera berdina erantzun dute gurasoek. Ama-seme-alaben elkarrizketei buruz ikasleek erantzundakoen ondoan, LMH eta DBHkoen arteko joerak antzekoak dira baina badute ñabardura bat. Soilik euskara erabiltzen dutenak antzeko proportzioetan erabiltzen dute (ia heren batek). Aldiz, soilik gaztelania erabiltzen dutenetan aldea dago. LMHn %36,3 diren artean, DBHn %46,2 dira. Tarte hori, batetik, LMHn bi hizkuntzak erabiltzen dutenak gehiago direlako ematen da eta bestetik beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak ere gehiago direlako da.

**Seme-alaba amarekin hizkuntza erabilera (gurasoen arabera)**

| | Guztira | HH | LMH | DBH |
|---|---|---|---|---|
| Euskara | 36,4 | 50,0 | 31,6 | 31,8 |
| Gaztelania | 35,3 | 22,3 | 36,3 | 46,4 |
| Biak batera | 15,7 | 15,2 | 18,4 | 10,9 |
| Beste bat | 12,7 | 12,5 | 13,7 | 10,9 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 434 | 112 | 212 | 110 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015




Aitarekin baino nabariagoa da amaren hizkuntza gaitasuna seme-alabarekin zein hizkuntzan egin erabakitzeko orduan. Tasa esleituei erreparatuta, ama elebiduna denean elkarrizketen %66,8a dira euskaraz (aiten kasuan %76,9a). Ama elebidun hartzailea denean %10,6 ematen dira euskaraz (aiten kasuan ia heren bat zen) eta erdalduna denean %3,3 (aiten kasuan %6,8.).

**Amaren hizkuntza gaitasuna eta berarekin elkarrizketa hizkuntza**

| | Guztira | Elebiduna | Elebidun hartzailea | Erdalduna |
|---|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 25,6 | 50,3 | 1,9 | 0,0 |
| Gehiago euskaraz | 6,1 | 10,2 | 1,9 | 2,2 |
| Bietara | 9,8 | 12,9 | 9,6 | 0,0 |
| Gehiago gaztelaniaz | 9,1 | 9,5 | 9,6 | 6,5 |
| Beti gaztelaniaz | 38,7 | 17,0 | 69,2 | 39,1 |
| Beste hizkuntza batean | 10,8 | 0,0 | 7,7 | 52,2 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 297 | 147 | 104 | 46 |
| Esleitutako erabilera tasa | 37,3 | 66,8 | 10,6 | 3,3 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

### 7.1.3. Euskararen erabilera guztiok elkarrekin daudenean

Guztiak batera daudenean (gurasoak eta anai-arrebak bazkaltzeko edo afaltzeko garaian), hizkuntza nagusia gaztelania da Soraluzeko ikasleen familien artean. %46,8k erdaraz egiten dute (beti gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean). Beti euskaraz egiten dutenak bostetik bat dira (gehiago LMHn DBHn baino) eta gehiago euskaraz egiten dutenak hamarren bat (gehiago DBHn LMHn baino). Horrela LMHn eta DBHn proportzio antzekoa da gehiago edo bakarrik euskaraz egiten dutenena (%27tik gora).

**Euskararen erabilera guztiok elkarrekin daudenean**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 18,9 | 20,5 | 15,9 |
| Gehiago euskaraz | 9,0 | 7,3 | 12,4 |
| Bietara | 15,9 | 17,3 | 13,3 |
| Gehiago gaztelaniaz | 9,3 | 10,5 | 7,1 |
| Beti gaztelaniaz | 35,7 | 32,3 | 42,5 |
| Beste hizkuntza batean | 11,1 | 12,3 | 8,8 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 333 | 220 | 113 |
| Esleitutako erabilera tasa | 36,0 | 37,2 | 33,6 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

## 7.1.4. Etxeko erabilera esleitua

Etxeko erabilera orokorra aztertuta, ia ezberdintasunik ez dago LMH eta DBH artean. Dena kontuan hartuta beraz, etxeko elkarrizketen hamarretik ia lau izaten dira euskaraz Soraluzen (%39,3).

Beti euskaraz egiten dutenak %7,4 dira eta gehiago euskaraz %23,3. Kontrako aldea, gehiago edo beti gaztelaniaz, guztira, %57,2 gehitzen dute.

**Etxeko erabilera esleitua**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 7,4 | 7,6 | 6,9 |
| Gehiago euskaraz | 23,3 | 22,9 | 24,1 |
| Bietara | 12,1 | 11,2 | 13,8 |
| Gehiago gaztelaniaz | 33,5 | 33,5 | 33,3 |
| Beti gaztelaniaz | 23,7 | 24,7 | 21,8 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 257 | 170 | 87 |
| Esleitutako erabilera tasa | 39,3 | 38,8 | 40,2 |

**Iturria:** Soraluzeko haur eta gaztetxoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



## 7.2. ESKOLA EREMUA

Eskola eremuari dagokion erabileraz aritzeko, ikasleek emandako erantzunak izan ditugu oinarri, esparru desberdin bi bereiziz; ikasgela eta jolastokia.

### 7.2.1. Euskara erabilera ikaskideekin klase garaian

LMHko ikasleen euskara erabilera altuena ikaskideekin klase garaian, beti euskaraz egiten dutenena da (%32,3). Ia hiru herenetan banatzen dira beti euskaraz, gehiago euskaraz eta bietara egiten dutenen multzoak.

DBHn berriz, talde nagusia bietara egiten dutenak dira (%43,4) eta aldiz, beti euskaraz egiten dutenak multzorik txikiena osatzen dute (%5,3).

**Euskara erabilera ikaskideekin klase garaian**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 23,2 | 32,3 | 5,3 |
| Gehiago euskaraz | 23,8 | 31,4 | 8,8 |
| Bietara | 32,4 | 26,9 | 43,4 |
| Gehiago gaztelaniaz | 15,5 | 7,6 | 31,0 |
| Beti gaztelaniaz | 5,1 | 1,8 | 11,5 |
| Beste hizkuntza batean | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 336 | 223 | 113 |
| Esleitutako erabilera tasa | 61,2 | 71,2 | 41,4 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

## 7.2.2. Euskara erabilera ikaskideekin jolas-orduan

Jolas-orduetan euskara erabilera nabarmen jaisten da, gehiago LMHko ikasleen artean, nahiz eta beraien erabilera DBHkoena baino altuagoa izaten jarraitzen duen.

Kasu honetan, LMHn bietara egiten dutenak dira multzo nagusia osatzen dutenak eta DBHn gehiago gaztelaniaz egiten dutena, bietan hamarretik lau inguru.

**Hizkuntza erabilera ikaskideekin jolas-orduan**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 11,1 | 14,9 | 3,5 |
| Gehiago euskaraz | 11,7 | 13,1 | 8,8 |
| Bietara | 33,5 | 38,5 | 23,9 |
| Gehiago gaztelaniaz | 27,8 | 21,3 | 40,7 |
| Beti gaztelaniaz | 15,9 | 12,2 | 23,0 |
| Beste hizkuntza batean | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 334 | 221 | 113 |
| Esleitutako erabilera tasa | 43,6 | 49,3 | 32,3 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



### 7.2.3. Ikastetxeko euskara erabilera (ikasleen artean)

Horrela bada, eskolakoa euskara erabilera altuagoa da LMH DBHn baino. LMHko ikasleen artean eskolan ematen diren elkarrizketen %56,7 dira euskaraz eta DBHko ikasleen artekoen %35,2.

**Eskola erabilera orokorra**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 10,5 | 14,5 | 2,7 |
| Gehiago euskaraz | 18,9 | 23,5 | 9,7 |
| Bietara | 32,6 | 38,0 | 22,1 |
| Gehiago gaztelaniaz | 33,8 | 22,2 | 56,6 |
| Beti gaztelaniaz | 4,2 | 1,8 | 8,8 |
| Beste hizkuntza batean | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 334 | 221 | 113 |
| Esleitutako erabilera tasa | 49,4 | 56,7 | 35,2 |

**Iturria:** Soraluzeko haur eta gaztetxoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



## 7.3. BESTE EREMU FORMALETAN, IRAKASLE EDO MONITOREEKIN

Gainontzeko eremu formaletan irakasle eta ikasleen artean ematen diren hizkuntza erabilerak aztertzeko, lehenik azpilaginen tamainari erreparatuko diogu. LMHren kasuan azpilagin guztiak 15 ikasleetatik gorakoak direnez denak aztertuko ditugu, DBHkoen kasuan berriz, dotrina-sendotzan, pintura eskolan eta dantza taldean ez dira kopuru horietara iristen, beraz azpilagin ez-nahikoak direnez horiek ez ditugu aztertuko. Besteetan 15eko kopurua gainditzen badute ere, Ludoteka/Gaztetxokoko eta musika eskolako azpilaginak txikiak direla kontuan hartuko dugu.

**Irakasle eta ikasleen arteko hizkuntza erabilerak, azpilaginak**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| LUDOTEKA/GAZTETXOKOAN | 105 | 86 | 19 |
| MUSIKA ESKOLAN | 78 | 60 | 18 |
| DOTRINA-SENDOTZAN | 86 | 78 | 8 |
| PINTURA ESKOLAN | 47 | 39 | 8 |
| LIBURUTEGIAN | 157 | 123 | 34 |
| DANTZA TALDEAN | 40 | 33 | 7 |
| ESKOLA KIROLEKO SAIOETAN | 106 | 76 | 30 |
| SORA FUTBOL TALDEAN | 76 | 43 | 33 |
| KLASE PARTIKULARRETAN | 166 | 84 | 82 |

**Iturria:** Soraluzeko haur eta gaztetxoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015

Beraz, hurrengo tauletan, eskola ez diren bestelako eremu formaletan (Ludoteka/Gaztetxokoan, liburutegian, e.a.) ikasleek euren irakasle edo monitoreekin egiten duten erabilera da jaso duguna.



Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

### 7.3.1. Euskara erabilera monitoreekin Ludoteka/Gaztetxokoan

LMHko ikasleek DBHkoek baino gehiago egiten dute euskaraz beraien monitoreekin Ludoteka/Gaztetxokoan. Elkarrizketa guztien %84,9 dira euskaraz LMHren kasuan, eta %71,1 DBHn.

LMHn multzo nagusia beti euskaraz egiten dutenena da (%67,4) eta DBHn beti euskaraz edo gehiago euskaraz egiten dutenena (%36,8 bakoitzean).

**LUDOTEKA/GAZTETXOKOA**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 61,9 | 67,4 | 36,8 |
| Gehiago euskaraz | 18,1 | 14,0 | 36,8 |
| Bietara | 12,4 | 12,8 | 10,5 |
| Gehiago gaztelaniaz | 2,9 | 2,3 | 5,3 |
| Beti gaztelaniaz | 4,8 | 3,5 | 10,5 |
| Beste hizkuntza batean | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 105 | 86 | 19 |
| Esleitutako erabilera tasa | 82,4 | 84,9 | 71,1 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



### 7.3.2. Euskara erabilera irakasleekin musika eskolan

LMHko ikasleek DBHkoek baino gehiago egiten dute euskaraz beraien irakasleekin musika eskolan. Elkarrizketa guztien %92,5 dira euskaraz LMHren kasuan, eta %72,2 DBHn.

LMHn multzo nagusia beti euskaraz egiten dutenena da (%78,3) eta baita DBHn ere (%44,4).

**Musika eskola**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 70,5 | 78,3 | 44,4 |
| Gehiago euskaraz | 15,4 | 13,3 | 22,2 |
| Bietara | 10,3 | 8,3 | 16,7 |
| Gehiago gaztelaniaz | 2,6 | 0,0 | 11,1 |
| Beti gaztelaniaz | 1,3 | 0,0 | 5,6 |
| Beste hizkuntza batean | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 78 | 60 | 18 |
| Esleitutako erabilera tasa | 87,8 | 92,5 | 72,2 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

## 7.3.3. Euskara erabilera irakasleekin dotrina sendotzen

Dotrina sendotzen, LMHko ikasleen elkarrizketen %49,7 dira euskaraz.

LMHn multzo nagusia bietara egiten dutenena da (%35,9).Gehiago gaztelaniaz edo beti egiten dutenak %34,6 batzen dute.

**Dotrina-sendotza**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 22,1 | 21,8 | Ez dago azpilagin nahikoa |
| Gehiago euskaraz | 7,0 | 7,7 | |
| Bietara | 37,2 | 35,9 | |
| Gehiago gaztelaniaz | 16,3 | 16,7 | |
| Beti gaztelaniaz | 17,4 | 17,9 | |
| Beste hizkuntza batean | 0,0 | 0,0 | |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | |
| (n) | 86 | 78 | |
| Esleitutako erabilera tasa | 50,0 | 49,7 | |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



### 7.3.4. Euskara erabilera irakasleekin pintura eskolan

Pintura eskolan irakasleekin egiten duten euskara erabilera, beste guztiekin alderatuta, oso txikia da, txikiena. Elkarrizketa guztien %12,8 dira euskaraz LMHren kasuan.

LMHn multzo nagusia beti gaztelaniaz egiten dutenena da (%69,2).

**Pintura eskola**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 2,1 | 2,6 | Ez dago azpilagin nahikoa |
| Gehiago euskaraz | 2,1 | 2,6 | |
| Bietara | 6,4 | 7,7 | |
| Gehiago gaztelaniaz | 19,1 | 17,9 | |
| Beti gaztelaniaz | 70,2 | 69,2 | |
| Beste hizkuntza batean | 0,0 | 0,0 | |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | |
| (n) | 47 | 39 | |
| Esleitutako erabilera tasa | 11,7 | 12,8 | |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

### 7.3.5. Euskara erabilera monitoreekin liburutegian

LMHko ikasleek DBHkoek baino gehiago egiten dute euskaraz beraien monitoreekin liburutegian. Elkarrizketa guztien %79,7 dira euskaraz LMHren kasuan, eta %58,1 DBHn.

LMHn multzo nagusia beti euskaraz egiten dutenena da (%60,2) baita DBHn ere (%32,4) baina kasu honetan beste aukeretan ere portzentaje altuak daude (bietara %20,6 eta gehiago gaztelaniaz edo beti gaztelaniaz %15 inguruan bakoitza).

**Liburutegia**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 54,1 | 60,2 | 32,4 |
| Gehiago euskaraz | 12,1 | 11,4 | 14,7 |
| Bietara | 19,1 | 18,7 | 20,6 |
| Gehiago gaztelaniaz | 8,9 | 6,5 | 17,6 |
| Beti gaztelaniaz | 5,7 | 3,3 | 14,7 |
| Beste hizkuntza batean | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 157 | 123 | 34 |
| Esleitutako erabilera tasa | 75,0 | 79,7 | 58,1 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



### 7.3.6. Euskara erabilera irakasleekin dantza taldean

Dantza taldean LMHko ikasleen artean, hamarretik zortzik baino gehiagok beti euskaraz egiten dute eta elkarrizketa guztien %93,2 izaten dira euskaraz.

**DANTZA TALDEA**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 70,0 | 84,8 | Ez dago azpilagin nahikoa |
| Gehiago euskaraz | 7,5 | 6,1 | |
| Bietara | 15,0 | 6,1 | |
| Gehiago gaztelaniaz | 5,0 | 3,0 | |
| Beti gaztelaniaz | 2,5 | 0,0 | |
| Beste hizkuntza batean | 0,0 | 0,0 | |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | |
| (n) | 40 | 33 | |
| Esleitutako erabilera tasa | 84,4 | 93,2 | |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



## 7.3.7. Euskara erabilera monitoreekin eskola kiroleko saioetan

LMHko ikasleek DBHkoek baino gehiago egiten dute euskaraz beraien monitoreekin eskola kiroleko saioetan. Elkarrizketa guztien %84,5 dira euskaraz LMHren kasuan, eta %54,2 DBHn.

LMHn multzo nagusia beti euskaraz egiten dutenena da (%65,8) eta DBHn bietara edo beti euskaraz egiten dutenena (%36,7 eta %20,0 hurrenez hurren).

**Eskola kiroleko saioak**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 52,8 | 65,8 | 20,0 |
| Gehiago euskaraz | 17,0 | 17,1 | 16,7 |
| Bietara | 17,0 | 9,2 | 36,7 |
| Gehiago gaztelaniaz | 7,5 | 5,3 | 13,3 |
| Beti gaztelaniaz | 5,7 | 2,6 | 13,3 |
| Beste hizkuntza batean | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 106 | 76 | 30 |
| Esleitutako erabilera tasa | 75,9 | 84,5 | 54,2 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



## 7.3.8. Euskara erabilera monitoreekin Sora futbol taldean

LMHko ikasleek DBHkoek baino gehiago egiten dute euskaraz beraien monitoreekin futbol taldean. Elkarrizketa guztien %83,7 dira euskaraz LMHren kasuan, eta %49,2 DBHn.

LMHn multzo nagusia beti euskaraz egiten dutenena da (%65,1) eta DBHn bietara egiten dutenena (%45,5).

**Sora futbol taldea**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 40,8 | 65,1 | 9,1 |
| Gehiago euskaraz | 14,5 | 11,6 | 18,2 |
| Bietara | 28,9 | 16,3 | 45,5 |
| Gehiago gaztelaniaz | 10,5 | 7,0 | 15,2 |
| Beti gaztelaniaz | 5,3 | 0,0 | 12,1 |
| Beste hizkuntza batean | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 76 | 43 | 33 |
| Esleitutako erabilera tasa | 68,8 | 83,7 | 49,2 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



## 7.3.9. Euskara erabilera irakasleekin klase partikularretan

LMHko ikasleek DBHkoek, kasu honetan paretsu egiten dute euskaraz beraien irakasleekin klase partikularretan. Elkarrizketa guztien %57,7 dira euskaraz LMHren kasuan, eta %54,9 DBHn.

Hala ere, LMHn multzo nagusia bietan antzera egiten dutenena da (%38,1) eta DBHn euskaraz gehiago egiten dutenena (%30,5).

**Klase partikularrak**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 22,9 | 28,6 | 17,1 |
| Gehiago euskaraz | 21,1 | 11,9 | 30,5 |
| Bietara | 30,1 | 38,1 | 22,0 |
| Gehiago gaztelaniaz | 10,2 | 4,8 | 15,9 |
| Beti gaztelaniaz | 14,5 | 14,3 | 14,6 |
| Beste hizkuntza batean | 1,2 | 2,4 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 166 | 84 | 82 |
| Esleitutako erabilera tasa | 56,3 | 57,7 | 54,9 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



## 7.4. BESTE EREMU FORMALETAN, IRAKASLE EDO MONITOREEKIN, SINTESIA

LMH eta DBHkoen joera antzekoa dela ikus daiteke, monitore edo irakasle ezberdinekin testuinguru ezberdinetan. Bi ikas mailetako ikasleek musika eskolan eta Ludoteka/Gaztetxokoan egiten dute gehien euskaraz.

Euskaraz gutxien egiten duten esparruak ezberdinak dira batzuentzat eta besteentzat. LMHko ikasleen kasuan, jaitsiera nabaritzen dute klase partikularretan eta bereziki dotrina-sendotzean eta pintura eskolan. Klase partikularretan ingelesezko klaseak bereiztu ez izanak akaso baldintzatzen du datu hau. DBHkoen kasuan, euskara erabilera txikiena Sora futbol taldean ematen da eta LMHko ikasleekin alderatua tarte handia dago, are gehiago, eremu guztiak kontuan hartua, tarte handiena hor ematen da.



## 7.5. BESTE EREMU FORMALETAN, LAGUN EDO TALDEKIDEEKIN

Jarraian irakasleekin bezala, ikasleen arteko hizkuntza erabilerak aztertzeko, lehenik azpilaginen tamainari erreparatuko diogu. LMHren kasuan azpilagin guztiak 15 ikasleetatik gorakoak direnez denak aztertuko ditugu, DBHkoen kasuan berriz, irakasleekin gertatzen zen bezala, dotrina-sendotzan, pintura eskolan eta dantza taldean ez dira kopuru horietara iristen, beraz horiek ez ditugu aztertuko ez-nahikoak izateagatik. Besteetan 15eko kopurua gainditzen badute ere, Ludoteka/Gaztetxokoko eta musika eskolako azpilaginak txikiak direla kontuan hartuko dugu.

**Lagun edo taldekideekin, azpilaginak**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| LUDOTEKA/GAZTETXOKOAN | 100 | 84 | 16 |
| MUSIKA ESKOLAN | 76 | 60 | 16 |
| DOTRINA-SENDOTZAN | 76 | 73 | 3 |
| PINTURA ESKOLAN | 48 | 39 | 9 |
| LIBURUTEGIAN | 145 | 112 | 33 |
| DANTZA TALDEAN | 41 | 34 | 7 |
| ESKOLA KIROLEKO SAIOETAN | 104 | 78 | 26 |
| SORA FUTBOL TALDEAN | 73 | 42 | 31 |
| KLASE PARTIKULARRETAN | 158 | 82 | 76 |

**Iturria:** Soraluzeko haur eta gaztetxoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015

Horrela, bestelako eremu formaletan ikasleen lagun eta taldekideen arteko euskararen erabilera nolakoa den jaso dugu hurrengo tauletan.



Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

### 7.5.1. Euskara erabilera ikaskideekin Ludoteka/Gaztetxokoan

LMHko ikasleen euskara erabilera altuena lagunekin Ludoteka/Gaztetxokoan, beti euskaraz egiten dutenena da (%44,0). Bigarren altuena bietara egiten dutenen multzoa da (%31,0).

DBHn berriz, talde nagusia bietara egiten dutenak dira (%62,5) eta aldiz, ez dago beti euskaraz egiten duenik.

**Lagun edo taldekideekin Ludoteka/Gaztetxokoan**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 37,0 | 44,0 | 0,0 |
| Gehiago euskaraz | 13,0 | 13,1 | 12,5 |
| Bietara | 36,0 | 31,0 | 62,5 |
| Gehiago gaztelaniaz | 8,0 | 8,3 | 6,3 |
| Beti gaztelaniaz | 6,0 | 3,6 | 18,8 |
| Beste hizkuntza batean | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 100 | 84 | 16 |
| Esleitutako erabilera tasa | 66,8 | 71,4 | 42,2 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



### 7.5.2. Euskara erabilera ikaskideekin musika eskolan

Musika eskolan lagunekin, LMHko ikasleen artean, berriro ere, beti euskaraz egiten dutenena da (%45,0) multzorik handiena. Bigarrena bietara egiten dutenen multzoa da (%28,3).

DBHn berriz, kasu honetan talde nagusia euskaraz gehiago egiten dutenak dira (%43,8) eta beti euskaraz egiten dutenak edo bietara edo beti gaztelaniaz portzentaje berdina dute (%18,8).

**Lagun edo taldekideekin musika eskolan**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 39,5 | 45,0 | 18,8 |
| Gehiago euskaraz | 26,3 | 21,7 | 43,8 |
| Bietara | 26,3 | 28,3 | 18,8 |
| Gehiago gaztelaniaz | 1,3 | 1,7 | 0,0 |
| Beti gaztelaniaz | 5,3 | 1,7 | 18,8 |
| Beste hizkuntza batean | 1,3 | 1,7 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 76 | 60 | 16 |
| Esleitutako erabilera tasa | 72,7 | 75,8 | 60,9 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



### 7.5.3. Euskara erabilera ikaskideekin dotrina-sendotzen

LMHko ikasleen hizkuntza erabilera altuen osatzen duen multzo dotrina-sendotzen, bietara egiten dutenena da (%43,8). Bigarren altuena beti gaztelaniaz egiten dutenen multzoa da (%17,8).

**Lagun edo taldekideekin dotrina-sendotzan**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 14,5 | 15,1 | Ez dago azpilagin nahikoa |
| Gehiago euskaraz | 13,2 | 13,7 | |
| Bietara | 44,7 | 43,8 | |
| Gehiago gaztelaniaz | 9,2 | 9,6 | |
| Beti gaztelaniaz | 18,4 | 17,8 | |
| Beste hizkuntza batean | 0,0 | 0,0 | |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | |
| (n) | 76 | 73 | |
| Esleitutako erabilera tasa | 49,0 | 49,7 | |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



### 7.5.4. Euskara erabilera ikaskideekin pintura eskolan

Pintura eskolan LMHko ikasleen hizkuntza erabilera ezberdinen arteko multzorik altuena, beti gaztelaniaz egiten dutenena da (%41,0). Bigarren altuena gehiago gaztelaniaz egiten dutenen multzoa da (%25,6).

**Lagun edo taldekideekin pintura eskolan**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 2,1 | 2,6 | Ez dago azpilagin nahikoa |
| Gehiago euskaraz | 10,4 | 7,7 | |
| Bietara | 25,0 | 23,1 | |
| Gehiago gaztelaniaz | 22,9 | 25,6 | |
| Beti gaztelaniaz | 39,6 | 41,0 | |
| Beste hizkuntza batean | 0,0 | 0,0 | |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | |
| (n) | 48 | 39 | |
| Esleitutako erabilera tasa | 28,1 | 26,3 | |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



### 7.5.5. Euskara erabilera ikaskideekin liburutegian

Liburutegian lagunekin, LMHko ikasleen artean, berriro ere, beti euskaraz egiten dutenena da (%46,4) multzorik handiena. Bigarrena bietara egiten dutenen multzoa da (%25,0).

DBHn berriz, kasu honetan talde nagusia bietara berdin egiten dutenak dira (%36,4); eta gehiago gaztelaniaz edo beti gaztelaniaz egiten dutenek guztira %48,4 gehitzen dute.

**Lagun edo taldekideekin liburutegian**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 36,6 | 46,4 | 3,0 |
| Gehiago euskaraz | 15,2 | 16,1 | 12,1 |
| Bietara | 27,6 | 25,0 | 36,4 |
| Gehiago gaztelaniaz | 9,7 | 5,4 | 24,2 |
| Beti gaztelaniaz | 11,0 | 7,1 | 24,2 |
| Beste hizkuntza batean | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 145 | 112 | 33 |
| Esleitutako erabilera tasa | 64,1 | 72,3 | 36,4 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



### 7.5.6. Euskara erabilera ikaskideekin dantza taldean

Dantza taldean lagunekin, LMHko ikasleen artean, berriro ere, beti euskaraz egiten dutenena da (%64,7) multzorik handiena. Kasu honetan gainera alde handiarekin hurrengo multzoarekiko. Bigarrena bietara egiten dutenen multzoa da (%20,6).

**Lagun edo taldekideekin dantza taldean**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 53,7 | 64,7 | Ez dago azpilagin nahikoa |
| Gehiago euskaraz | 12,2 | 14,7 | |
| Bietara | 22,0 | 20,6 | |
| Gehiago gaztelaniaz | 2,4 | 0,0 | |
| Beti gaztelaniaz | 9,8 | 0,0 | |
| Beste hizkuntza batean | 0,0 | 0,0 | |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | |
| (n) | 41 | 34 | |
| Esleitutako erabilera tasa | 74,4 | 86,0 | |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

### 7.5.7. Euskara erabilera ikaskideekin eskola kiroleko saioetan

Eskola kiroleko saioetan lagunekin, LMHko ikasleen artean, beti euskaraz egiten dutenena da (%42,3) multzorik handiena. Bigarrena bietara egiten dutenen multzoa da (%25,6).

DBHn berriz, kasu honetan talde nagusia bietara egiten dutenak dira (%50,0) eta gehiago euskaraz zein gaztelaniaz aritzen direnak bigarren kokatuko lirateke (%15,4 multzo bakoitzak).

**Lagun edo taldekideekin eskola kiroleko saioetan**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 33,7 | 42,3 | 7,7 |
| Gehiago euskaraz | 17,3 | 17,9 | 15,4 |
| Bietara | 31,7 | 25,6 | 50,0 |
| Gehiago gaztelaniaz | 12,5 | 11,5 | 15,4 |
| Beti gaztelaniaz | 4,8 | 2,6 | 11,5 |
| Beste hizkuntza batean | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 104 | 78 | 26 |
| Esleitutako erabilera tasa | 65,6 | 71,5 | 48,1 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



### 7.5.8. Euskara erabilera ikaskideekin Sora futbol taldean

Sora futbol taldean lagunekin, LMHko ikasleen artean, beti euskaraz egiten dutenena da (%38,1) multzorik handiena. Bigarrena bietara egiten dutenen multzoa da (%28,6).

DBHn berriz, kasu honetan talde nagusia bietara egiten dutenak dira (%38,7) eta gehiago euskaraz aritzen direnak bigarren kokatuko lirateke (%22,6).

**Lagun edo taldekideekin sora futbol taldean**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 23,3 | 38,1 | 3,2 |
| Gehiago euskaraz | 20,5 | 19,0 | 22,6 |
| Bietara | 32,9 | 28,6 | 38,7 |
| Gehiago gaztelaniaz | 16,4 | 14,3 | 19,4 |
| Beti gaztelaniaz | 6,8 | 0,0 | 16,1 |
| Beste hizkuntza batean | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 73 | 42 | 31 |
| Esleitutako erabilera tasa | 59,2 | 70,2 | 44,4 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



### 7.5.9. Euskara erabilera ikaskideekin klase partikularretan

Klase partikularretan lagunekin, LMHko ikasleen artean, bietara egiten dutenena da (%42,7) multzorik handiena. Bigarrena beti euskaraz egiten dutenen multzoa da (%28,0).

DBHn ere, kasu honetan talde nagusia bietara egiten dutenak dira (%30,3) baina oso gertutik jarraitzen diote gehiago euskaraz edo gaztelaniaz egiten dutenek, portzentaje berdina dutelarik azken multzo biek(%26,3).

**Lagun edo taldekideekin klase partikularretan**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 18,4 | 28,0 | 7,9 |
| Gehiago euskaraz | 19,0 | 12,2 | 26,3 |
| Bietara | 36,7 | 42,7 | 30,3 |
| Gehiago gaztelaniaz | 17,7 | 9,8 | 26,3 |
| Beti gaztelaniaz | 8,2 | 7,3 | 9,2 |
| Beste hizkuntza batean | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 158 | 82 | 76 |
| Esleitutako erabilera tasa | 55,4 | 61,0 | 49,3 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



## 7.6. BESTE EREMU FORMALETAN, LAGUN EDO TALDEKIDEEKIN, SINTESIA

Aurretik aipatu dugun bezala, datu hauek interpretatzeko DBHko ikasleen dantza taldeko, dotrina-sendotzako eta pintura eskolako datuak alde batean utziko ditugu, lagin nahikorik ez baitago.

Ikasleek beraien artean dituzten euskara erabilera esparru ezberdinetan aztertuta, LMHkoen artean alde handiagoak ikusten dira DBHkoen artean baino. LMHn dantza taldean duten euskara erabilera besteen gainetan nabarmentzen da (%86,0). Ondoren bost esparru ezberdinetan %75-70aren bueltan dabiltza eta klase partikularrak, dotrina-sendotzan eta pintura eskolan erabilerak nabarmen baxuagoak dira. DBHkoen kasuan, %35 eta %50aren bueltan dabiltza esparru guztietan, musika eskolan kenduta, %60,9koa dela euskara erabilera.




Esparru guzti horietan, aurretik ikasle-irakasle arteko elkarrizketetan ikusi ditugun joera berdinak antzematen dira, beraz batzuen ekitea besteengan eragiten duela pentsa daiteke.

## 7.7. EREMU FORMALETAN EUSKARA ERABILEREN TASA ESLEITUAK

Aztertutako eskolaz kanpoko eremu formal guztiak bateratu eta bakoitzean parte hartzen duten ikasleen kopurua kontutan hartuz sortu dugu eremu formaletan euskara erabileren tasa esleituak[6]. Aurretik agertu bezala, LMHko ikasleen euskara erabilera DBHkoena baino altuagoa da, bai irakasleekin bai ikaskideen artean. Azpimarratzeko datua kasu honetan ordea, zera da, LMHko ikaskideen arteko euskara erabilera altuagoa da DBHkoena haien irakasleekin dutena baino.

Orokorrean hartuta, LMHko ikasleek eskolaz kanpo eremu formaletan izaten dituzten elkarrizketen %69,4 euskaraz dira, DBHkoen kasuan %52,5.

**EREMU FORMALETAN EUSKARA ERABILERA TASA ESLEITUA**

| | LMH | DBH |
|---|---|---|
| Irakasle eta monitoreekin | 72,3 | 57,3 |
| Ikaskideekin | 65,8 | 46,6 |
| Eskolaz kanpoko eremu formaleko tasa esleitu orokorra | 69,4 | 52,5 |

**Iturria:** Soraluzeko haur eta gaztetxoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015




[6] Ikus metodozko oharrak

## 7.8. EREMU EZ FORMALA

Eremu formalean ikasleek egiten duten erabilera aztertu ostean, eremu ez formalean ikaskide zein lagunekin gertatzen dena ikus dezagun. Alde batetik, kalean lagunartean egiten duten hizkuntza izango genuke eta bestetik, txateatzeko euren artean darabiltena.

### 7.8.1. Euskara erabilera ikaskideekin kalean

LMHko ikasleek DBHkoek baino gehiago egiten dute euskaraz beraien artean kalean. Elkarrizketa guztien %38,5 dira euskaraz LMHren kasuan, %29,6 DBHn.

LMHn multzo nagusia bi hizkuntzetan antzera egiten dutenena da (%32,0) eta desoreka dagoenean (euskararen alde edo gaztelaniaren alde), gaztelaniaren multzoak handiagoak dira. Beti euskaraz edo gehienetan egiten dutenak %19,6 gehitzen dute, multzo berdinak gaztelaniaren aldean %48,4.

DBHn joera antzekoa da, gaztelaniaren aldeko hautua pixka bat indartsuagoa delarik.

**Ikaskideekin kalean**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 6,6 | 8,2 | 3,5 |
| Gehiago euskaraz | 9,0 | 11,4 | 4,4 |
| Bietara | 30,1 | 32,0 | 26,5 |
| Gehiago gaztelaniaz | 28,0 | 22,8 | 38,1 |
| Beti gaztelaniaz | 26,2 | 25,6 | 27,4 |
| Beste hizkuntza batean | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 332 | 219 | 113 |
| Esleitutako erabilera tasa | 35,5 | 38,5 | 29,6 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



### 7.8.2. Euskara erabilera lagunekin txateatzen

Lagunekin txateatzen dutenean, ikaskideekin kalean duten erabilerarekin alderatuta, LMHko ikasleen kasuan euskara erabilera apur bat igotzen da, DBHkoen kasuan berriz, mantentzen da. Bi hizkuntzak neurri berean erabiltzearen aukera da bereziki indartzen dena bi ikasmailetan.

**LAGUNEKIN TXATEATU**

| | Guztira | LMH | DBH |
|---|---|---|---|
| Beti euskaraz | 2,3 | 4,5 | 0,0 |
| Gehiago euskaraz | 6,9 | 8,9 | 4,7 |
| Bietara | 46,3 | 53,6 | 38,7 |
| Gehiago gaztelaniaz | 17,9 | 8,9 | 27,4 |
| Beti gaztelaniaz | 26,6 | 24,1 | 29,2 |
| Beste hizkuntza batean | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| (n) | 218 | 112 | 106 |
| Esleitutako erabilera tasa | 35,1 | 40,2 | 29,7 |

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015



## 7.9. EREMU EZ FORMALA, SINTESIA

Eremu ez formaleko bi aldagaiak aztertuta, ez da ageri alde handirik. LMHkoen kasuan apur bat gehiago egiten dute euskaraz txateatzen dutenean (idatzizko komunikazioa) kalean elkarrekin daudenean (ahozkoa) baino. Baina aldea txikia da euren kasuan eta DBHkoen kasuan berdina da portzentajea.

Guztira, LMH eta DBHkoen arteko aldea ia 10 puntukoa da testuinguru ez formaletan. LMHko ikasleen lagun arteko elkarrizketen %39,3 euskaraz diren bitartean, DBHko ikasleena %29,7 dira.






Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain - Tel.: 943 592556 - kluster@soziolinguistika.org

## 7.10. KOMUNIKABIDE ETA KULTUR KONTSUMOA

Kultur eta komunikabide kontsumoa zein hizkuntzatan egiten duten bildu dugu jarraian, alegia, telebista ikusi, musika entzun, liburuak irakurri, irratia entzun, Interneten nabigatu eta zineman pelikulak ikusi ohi dituztenean zein hizkuntzatan egiten duten.

### 7.10.1. Telebista ikustean hizkuntza hautaketa

Telebista ikusteko orduan, LMHko ikasleek zertxobait gehiago ikusten dute euskaraz DBHkoek baino. LMHko ikasleen artean telebista ikusten duten guztiaren laurdena baino gehiago ikusten dute euskaraz (%27,7). DBHkoen kasuan bosten bat (%21,6). Bietan telebista beti gaztelaniaz ikusten dutenak dira nagusi (%39,4 eta %39,1 hurrenez hurren).

